ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko martxoaren 22a > Astelehena > VI. urtea > 270. zenbakia > 1,10 euro

www.goiena.net TOKIKOM

"Ardoa antioxidatzailea denez, zelulen defentsa mekanismoa hobetzen du"



**Luis Bujanda**
Medikua > 06

**G2a** **Txikitxu-Arrostaitzen 40. urteurrena** > 25

**BERGARA**
**Gaztetxoendako X. olinpiadak gertu ditu Jardunek** > 09

**ELGETA**
**Kirola, bazkaria eta dantza gaztetxearen XIV. urtemugan** > 10

**MUSIKA**
**Hamlet talde madrildarrarekin, eromena Arrasaten** > 26

**JENDARTEA** > ADIN TXIKIKO ETORKINAK

# Elgetarrak kezkatuta, Aixolako zentroan izandako istiluengatik

**SEGURTASUN NEURRIAK** Elgeta, Eibar eta Ermuko udalek segurtasun neurriak eta arauak eskatu dizkiote Diputazioari

**BELDURRA** Aixola inguruan jende gutxiago dabil orain kirola egiten eta paseoan, bizilagunen esanetan

**MOBILIZAZIOAK** Egoera honen harira, herritar talde bat batzen hasi da eta manifestazioa egitekotan da > 02-03



**NEKAZARITZA TURISMOA** Madrilgo eta Euskal Herriko bisitari batzuk, Lamaño-Etxeberrin gosaltzen. JOSETXO ARANTZABAL

## Euskal Herriko jendea, kanpokoa baino gehiago

San Jose zubian, asteburu normaletan baino mugimendu handiagoa egon da Debagoienean, baina lasai joan da. Arrikrutzeko kobek erakarri dute jende gehien: 500 lagunek baino gehiagok bisitatu dute, hiru egunetan. Euskal Herriko jendea etorri da gurera, kanpokoa baino gehiago eta, beraz, nahi baino gela gehiago egon dira hutsik ostatuetan. > 04

**SUHILTZAILEAK** > IRTEERAK

## Zubillagatik 238 irteera 2009an

Suteek eragin zituzten Oñatiko suhiltzaile-etxekoen irteera gehienak > 05

**ARRASATE** > BIDEAK

## Kezka azaldu dute baserrietan

Asteon aurkeztuko dizkiote Udalari inbentarioaren gaineko kezkak > 12

**ESKORIATZA** > LUR-JAUSIA

## Gaur hasiko dira hegala trinkotzen

Bi dira Aranburuzabala kalearen atzealdeko hegala egonkortzeko egin beharreko lan garrantzitsuenak: lur-jausia izandako ezponda bihurdura hirukoitzeko sarearekin babestea, eta haitz-ezpondari eusteko hormigoi armatuzko horma egitea. Maiatzerako bukatu gura dituzte. > 15

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 09-16
**Kirola** > 17-23
**Kultura** > 25-27
**Sailkatuak** > 28
**Telebista-Irratia** > 29
**Berri-zakua** > 30-31
**Azkena** > 32

**ANTZUOLA** > ARMARRIA

## Armarriko kanoiak berbagai

Mahai-ingurua egingo dute *Goiena magazinea* saioan, eguenean, 19:45ean hasita > 16

**TXIRRINDULARITZA** > GORLA

## Herrada nagusitu zen, esprintean

Caja Ruraleko txirrindulariak justu-justuan irabazi zion Naturgas taldeko Bilbaori. Irabazleak 2:23:52ko denbora egin zuen Gorla gainean. Bergarar onenaren saria 55. tokian sailkatu zen Iban Caballerok eroan zuen. > 17



**JENDARTEA** > AIXOLAKO ZAINTZA ESPEZIALIZATUKO ZENTROA

# "Oraindik ez dute gure kontra ezer egin, baina beldurra dugu"

**HERRITARREN KEZKA** Joan den martxoaren 11n adin txikiko etorkinek eragindako istiluen harira kezkatuta azaldu dira herritarrak; zer egingo ote duten beldur

**SEGURTASUN NEURRIAK** Elgetako, Eibarko eta Ermuko udalek joan den astean eskatu zioten Gipuzkoako Foru Aldundiari segurtasun neurriak eta arauak jar ditzala



Zaintza espezializatuko zentroa dagoen ingurunean jende asko ibiltzen da paseoan edo kirola e

**MIRIAN BITERI** > ELGETA

"Oraindik ez dute gure kontra ezer egin, baina beldurra dugu". Angel Gallastegi elgetarraren hitzak dira horiek; Aixola Goikoa baserrian Diputazioak zabaldutako adin txikiko etorkinendako zentroaren harira egindako adierazpenak dira. Gallastegik Eibarren du etxebizitza baina, eguraldi onarekin, zentrotik metro gutxira duen txabola batean egonaldi luzeak egiten ditu, emaztearekin eta hiru txakurrekin batera. "Gauetan, txakurrak zaunka egiten hasten direnean, gure kontra edo etxe ondoan aparkatuta daukagun autoaren aurka zerbait egingo ote duten beldur izaten gara", azaldu digu. Horren harira, orain dela gutxi gertatutako pasarte baten berri eman digu: hain justu ere, Aixolako ingurunean paseoan zebilen Ermuko erretiratu bati arropa kentzeko agindu eta biluzik utzi zuten egunekoa.

**Angel Gallastegiren esanetan, orain dela gutxi ingurunean paseoan zebilen Ermuko erretiratu bat biluzik utzi zuten**

**Aixola Behekua baserrikoek diote jende gutxiago ibiltzen dela handik; Oilakorta jatetxean ez dute jaitsierarik igarri**

**LAUTIK BAT**

Urpean geratu zen Aixola Behekua baserriko semea da Angel Gallastegi. Txabola bat egin zuten baserri barik geratu zirenean, eta bertan egiten dute bizimodua, eguraldi ona egiten duenean: "Baratzea ere badugu hemen eta gustura etortzen gara; oso toki lasaia da".

Hori dela-eta, elgetarrak ederto daki Aixola urtegiko ingurune horretatik zenbat jende ibiltzen den paseoan edo kirola egiten. Horren harira, jakinarazi digu abenduan zentroa ireki zutenetik, jende gutxiago dabilela: "Pena da, baina orain lautik bat etortzen da hona. Lehen, jendea lasai asko etortzen zen paseatzera edo korrika egitera, baina azkenaldian jende askoz gutxiago dabil; lehen etortzen zirenak orain ez datoz. Emakume gutxi ikusiko dituzu hemendik bakarrik". Gaineratu du Ertzaintza askotan ibiltzen dela handik.

Haren anaia Juan Mari Gallastegi Zaldibarko bidean baina Elgetako lurretan dagoen Oilakorta jatetxean topatu dugu. Angelen hitzak baieztatu dizkigu: "Nik ere igarri dut orain jende gutxiago dabilela inguruotan. Normala da". Oilakorta jatetxeko ugazabak, aldiz, dio jatetxean ez dutela mugimendu jaitsierarik sumatu eta berdin egiten dutela lan.

Bestalde, Angel Gallastegi haserre dago, Gipuzkoako Foru Aldundiko inor ez delako Aixola Behekua baserritik pasa, ondoan adin txikiko etorkinendako zentroa jarri behar zutela esateko: "Ez dira etorri. Toki horretarako zuten asmoa jakinarazi zuten baserria erosi eta gerora. Aurretik esanez gero, herria horren kontra mugitzen has zitekeela pentsatuko zuten".

**MOBILIZAZIOAK**

Nabarmendu nahi izan du herritar talde bat batzen hasi dela egoera horren harira ekimenen bat antolatzeko: "Manifestazioa egitekotan gabiltza. Guztiak elkartzen garenean zehaztu beharko dugu zer egin".

Bestalde, gaiaren harira Elgetako Udalak izandako jarrera txalotu nahi izan du: "Bereziki, Elgetako eta Eibarko udalak ondo portatzen ari dira; egoera bideratzeko euren eskuetan dagoen dena egiten dabiltza".

Juan Mari Gallastegik gaineratu digu Elgetan ez ezik, Zaldibarko Eizaga auzoko bizilagunak ere haserre daudela gai horren harira eta elkarrekin mobilizazioak antolatu nahian dabiltzala.

**KOKAPENAREN GAINEKO GOGOETA**

Herritarrez gain, erakundeak ere arduratuta daude gai horrekin. Horren erakusle da Eibar, Ermua eta Elgetako udaletako ordezkariak Gipuzkoako Diputazioko Gazteria Saileko zuzendari Jose Inazio Intsaustirekin urgentziaz batzartu zirela joan den astelehenean, martxoak 15, Donostian. Aixolaren inguruko kezka adierazi zioten Intsaustiri eta zentroaren kokapenaren gaineko gogoeta egin dezatela eskatu zioten. Horretaz gain, zentroa zabalik mantenduz gero, dagozkion segurtasun neurriak eta arauak ipintzeko eskaera ere egin zioten zuzendariari batzar hartan Oxel Erostarbek, Elgetako alkateak; Miguel de los Toyosek, Eibarko alkateak; eta Jose Luis Araujok, Ermuko Gizarte Ongizate Saileko zinegotziak. Bestalde, Iñigo Lamarka Arartekoari ere eskaera zehatza egin zioten: Aixolako adin txikikoen zentroaren jarraipena egin dezala, hain justu ere.

**"ERABAKI POLITIKOA"**

Martitzenean bidalitako prentsa oharrean, Oxel Erostarbek salatu zuen Aixolan mota horretako zentroa zabaltzea "erabaki politikoa" izan dela. Haren esanetan,



Angel Gallastegi, zentro ondoan duen txabolako sarreran. MIRIAN BITERI



giten; bizilagunek diote orain mugimendu txikiagoa dagoela. MIRIAN BITERI

"EAJk eta Hamaikabatek zabaldu dute zentroa eta euren ardura da orain behar den moduko kudeaketa egin eta egubakoitzekoa modukoa berriro ez gertatzeko neurriak hartzea. Pentsatzen dut ez dela kasualitatea zentro hau Aixolan kokatzea, Aralarrek eta alderdi sozialistak alkatetza dugun herrien inguruan". Dena dela, Erostarbek gaineratu zuen Elgetako Udala elkarlana bultzatzen ahaleginduko dela: "Pentsatzen dugu Eibar, Ermua eta Elgetako udalok, Ertzaintzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarri dugun koordinazio mahaia pauso egokia dela horretarako".

**BOST GAZTE, ZUMARRAGARA**

Orain arte aipatutakoa martxoaren 11 eta 12 arteko gauean zentroan izandako istiluen ondotik dator. Ertzaintzak han bizi diren sei adin txikiko atxilotu zituen, eraikinean matxinatu, begiraleak mehatxatu eta haiei eraso egin ostean. Bergarako Ertzaintzaren komisarian deklaratu ostean, atxilotutako bost gazte Zumarragako zentrora eraman zituzten.

Harrera zentroak joan den abenduan zabaldu zituen ateak; 16 eta 20 urte bitarteko etorkinak hartzeko dago egokituta. Gehienez hamar gazte sartzen badira ere, *matxinada* gertatu zenean zortzi adin txikiko zeuden han bizi izaten. Abenduaren 16an iritsi ziren lehenengo gazteak zentrora; adin txikikoak atzerritarrak dira guztiak eta jarrera arazoak dituzte. Gutxieneko arauak betetzen ez dituztenak dira, hala nola, ordutegiak errespetatzen ez dituztenak, eskolara joaten ez direnak, lagunekiko edo hezitzaileekiko agresibitatea erakusten dutenak edo kalean iskanbilak sortzen dituztenak.

Aixolan istiluak eragin zituztenak aurretik Diputazioaren beste zentroren batean egonda zeuden. Hain justu ere, Zumarragara eraman zituzten bost gazteetatik lau Debako Endoiako zentroan egon ziren aurretik.

ESANAK

## "Manifestazioa antolatzekotan gabiltza; guztiak elkartzen garenean, zehaztuko dugu"

**Angel Gallastegi** > Elgetarra

## "Nik ere igarri dut azkenaldian jende gutxiago dabilela Aixola urtegiko ingurunean, eta normala da"

**Juan Mari Gallastegi** > Elgetarra

## "Udalek, Ertzaintzak eta Diputazioak martxan jarri dugun koordinazio mahaia pauso egokia da"

**Oxel Erostarbe** > Elgetako alkatea

KRONOLOGIA

## Aixolan gertatutakoa gaur arte

**> JAKINARAZPENA**

Elgetako Udalak eskatuta, 2009ko martxoaren 5ean, Diputazioko bi teknikarik batzar informatiboa egin zuten herrian. Orduan jakinarazi zuten Aixola Goikoa baserrian adin txikiko etorkinendako zentroa zabaltzeko asmoa zutela. Baserriaren salerosketa hiru bat aste lehenago egin zela ere azaldu zuten.

**> ZENTROAREN IREKIERA**

Baserriko egokitzapen lanak amaituta, 2009ko abenduaren 16an iritsi ziren lehenengo gazteak Aixolara.

**> POLITIKARIEN BISITA**

Hurrengo egunean, abenduak 17, Batzar Nagusietan ordezkatuta dauden alderdietako kideek zentroa bisitatu zuten.

**> BATZAR IREKIA OTSAILEAN**

Aurtengo otsailaren 3an, 40 lagun inguru bildu ziren Elgetan, Aixolako zentroari buruzko batzar irekian. Bertan izan ziren, besteak beste, Aldundiko teknikari Iñaki Bengoetxea, Aixola zentroa kudeatzen duen Babesten enpresako Mikel Lizarralde eta Agurtzane Gartzia, Oxel Erostarbe alkatea, udal zinegotzi eta langileak, Aixola auzoko bizilagunak eta Elgetako, Eibarko eta Ermuko hainbat herritar.

Batzar hartan, Erostarbek iragarri zuen Eibarko eta Ermuko udalekin batera jarraipen batzordea eratzea eskatuko ziotela Diputazioari. Orduko zurrumurru eta gaizki ulertu ugari ziren Elgetan.

Gerora, batzorde horrek egindako batzarrean Zaldibarko Udala ere horretan sartzea erabaki zen.

**> SEI ATXILOTU**

Hilaren 11 eta 12 arteko gaueko istiluen ondotik, Ertzaintzak zentroan bizi ziren sei adin txikiko atxilotu zituen. Jaurlaritzako Barne Sailak bidalitako prentsa oharraren arabera, egun hartan gazteak begiraleak mehatxatzen eta erasotzen hasi ziren; zortzi adin txikiko ziren momentu hartan han. Hiru begiralek zauri arinak jasan zituzten.

**> ZUMARRAGAKO ZENTRORA**

Bergarako Ertzaintzaren komisarian deklaratu ostean, atxilotutako bost gazte Zumarragako zentrora eramatea erabaki zuten.

DATUA

**10**

**GAZTE**

Joan den otsailaren 3an egindako batzarrean, Diputazioko teknikari Iñaki Bengoetxeak nabarmendu zuen Aixola Goikoa baserrian, gehienez, hamar gazterendako tokia dagoela.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
MARTXOKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

DANBAKAKO HIRU DISKA
Bidali KLUBA DANBAKA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
DANBAKA


UMEENTZAKO LIBURUAK
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea


SASKIBALOIRAKO SARRERAK
Bidali KLUBA SARRERAK [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
LAGUN ARO SAN SEBASTIAN GIPUZKOA BASKET


GOIENAKO PENDRIVE-A
Bidali KLUBA PENDRIVE [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Goiena Komunikazio Zerbitzuak


SARI NAGUSIA URTARRILA-MARTXOA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
JOCCA RACLETTE

• Grill-plantxa estaldura itsasgaitzarekin eta ateragarria, erraz garbitzeko.
• Ez du oliorik behar.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

**TURISMOA** > SAN JOSE ZUBIA

# Hiru egunetako aste bukaeran, Euskal Herriko jendea etorri da bisitan kanpokoa baino gehiago



Bisitari talde bat, Arrikrutz koben barruko aldea ezagutzen. J.A.

Asteburu normaletan baino mugimendu handiagoa egon da, baina lasai joan da

Arrikrutzek erakarri du jende gehien: 500 bisita baino gehiago, barikutik domekara

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Lasai joan da San Jose zubia Debagoienean: bertako jendearen falta sumatu da eta bisitariak izan ditugu, baina ez asko. Eta etorri direnen artetik gutxi batzuek baino ez dute hartu ostatu gurean; etxea gertu zutelako izango zen seguruenik, bisitari gehienak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik etorri direlako. Ostatuetan ez da, beraz, aparteko mugimendurik izan: Oñatiko Ongi hotelean 15 gelatatik zazpi egon dira beteta, eta Arregi nekazaritza turismoan seitik lau; Bergarako Ormazabal hotelean asteburu normal baten baino lasaiago egon dira, Anduri baserrian ez dute inor izan, eta Lamaño-Etxeberrin lauzpabost gelatan izan dute jendea, batez beste; Aretxabaletako Mitarte Garai nekazaritza turismoko eta Leintz Gatzagako Soran etxeko gelak hutsik egon dira, baina batean zein bestean azaldu digute ondo lan egin dutela tabernan. Galdetutako tokien artetik, bakar baten esan digute etxea beteta izan dutela zubian, Antzuolako Ibarren, hain zuzen: Gabonetan izandako taldearekin bete egin da berriz ere.

**SAN JOSE EGUNA, JENDETSUENA**

Barikua izan zen egunik fuerteena. Egun horretan, 90 lagunek esku hartu zuten Oñatiko unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko bisita gidatuetan –zapatuan 34k–; eta zubiko lehen egun horretan Arrikrutzeko kobetan izandako bisitari kopurua ondorengo bi egunetakoen bikoitza izan zen –260 lagun pasa ziren barikuan eta 130na zapatuan eta domekan–. Arrikrutzen, baina, faltan bota dituzte familia bonuak: 2010 urte hasieratik turismo bulego, komertzio, nekazaritza etxe eta jatetxetan banatu dituzte kobetara bisitan doazen seme-alabadun bikoteei deskontuak egin asmoz, eta gutxi batzuk baino ez dituzte leihatilan aurkeztu.

Leintz Gatzagako turismo bulegoan esan digute ez dela jende askorik ibili, baina bai asteburu normal baten baino gehiago. Gatz museoan programatuta dituzten bisitekin –egun bakoitzeko, bi– aurrera egin ahal izan dute, baina ez da besterik atera.

**BARRUALDEKO ESKAINTZA**

Gurean ostatu hartzen duten askok Gipuzkoako kostaldera eta Bilbora jotzen badute ere, gero eta gehiago dira Debagoieneko eskaintzan interesatuak.

ESANAK

"Lagun batek gomendatuta etorri gara Euskal Herrira eta txundituta geratu gara zein berdea den ikusirik. Zoragarria"

**Almudena Martinez** > Madrildarra

"Arrikrutzeko kobak bisitatu ditugu, bilobaren nahia asetzeko. Ondo zainduta eta txukun daude benetan"

**Jesus Garagartza** > Eibartarra

"Arrasatekoak gara jaiotzez eta nahiko sarri etortzen gara. Arrikrutz ezagutzeko aprobetxatu dugu eta asko gustatu zaigu "

**Francisco Montiano** > Madrildarra

"Nabaritu da beherakada: egoera ekonomikoa, kataluniarrek jai ez izatea, Aste Santua gertu egotea..."

**Maite Aristegi** > Lamaño-Etxeberri

DATUA

**260**

**BISITARI EGUN BAKAR BATEAN**

San Jose egunean, 260 lagunek bisitatu zituzten Arrikrutzeko kobak, eta 50 inguru kanpoan geratu behar izan ziren. Ikaragarritzat jo dute arduradunek.

**MOBILIZAZIOAK** > ANZA AUZIA

# Debekuak debeku, Anzaren heriotza argitzeko eskatu zuten

LABek Arrasaten eta Bergaran eguen eguerdirako deitutako elkarretaratzeak ez ziren egin azkenean




Arrasateko herriko plazatik atera zen bariku arratsaldeko manifestazioa. MIREN MANIAS

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Jon Anzaren heriotza argitu dadila eskatzeko, ekimen ugari egin zituzten eguenean, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuaren Nafarroako ordezkaritzak debekatu arren.

Debagoienean, esaterako, guztiak eraman zituzten aurrera, pare bat izan ezik: bertan behera geratu ziren LAB sindikatuak Arrasaten eta Bergaran eguerdirako deitutako elkarretaratzeak. Aldiz, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, bi kontzentrazio egin zituzten Oñatin –eguerdian bat eta arratsaldean bestea–. Bergaran, manifestazioa egin zuten iluntzean eta tentsio une batzuk bizi izan ziren: debekua zela-eta, aurreikusitakoa baino beranduago abiatu zen manifestazioa Domingo Irala kaletik, eta lekuko batek jakinarazi digunez, "horren berri izan bezain pronto bertaratu ziren ertzainak"."Ariznoa taberna barruraino sartu ziren, armekin, eta ahal izan zuen moduan alde egin zuen jendeak", kontatu digu. Mondragon Unibertsitateko Arrasateko ikasleek geldialdia egin zuten eguerdian, eta herritar talde bat manifestazioan atera zen arratsaldean, *Jon eraila. Errepresioa eta gerra zikina amaitu* lelodun pankartaren atzetik; plazatik aterata, ohi baino ibilaldi laburragoa egin zuten, alde zaharretik atera barik. Ertzaintzak gertutik jarraitu zuen manifestazioa.

> OSASUNA

## Asmaren gaineko hitzaldia, etzi Kulturaten

Debagoieneko Ospitaleak hitzaldi bat antolatu du eguaztenerako –martxoak 24–, asma duten herritar denei zuzenduta. *Asma kontrolatzearen garrantzia* izenburupean, bizi kalitate ona izateko gaixotasunaren kontrol egokia eramateak duen garrantziari buruz hitz egingo dute adituek.

Zer da asma? zentzuk dira sintomak? nola kontrolatu daiteke? nola antzeman krisi edo okertzeren bat adierazten duten zantzuak?... galdera askoren erantzuna emango dute adituek eta tratamendu farmakologikoaren eta ez farmakologikoaren gaineko informazioa ere emango dute, baita arnasgailuak egoki erabiltzen irakatsi ere.

Hitzaldia eguazten arratsaldean izango da, 19:00etan hasita, Arrasateko Kulturaten.

**NEKAZARITZA** > ARTZAINTZA

# 13 artzain berri atera dira aurten Gomiztegi baserri-eskolatik

Pilar Unzalu Ingurumen eta Nekazaritza sailburuak "ingurumena eta paisaia zaintzeko" artzainek egiten duten ekarpena txalotu du

**G.ARANA/A.BARRUSO** > OÑATI

Eguenean, martxoak 18, jaso zuten artzain direla erakusten duen makila, Arantzazuko Gandiaga Topagunean egindako ikasturte amaierako ekitaldian. Artzain berri eta eskolako arduradunekin batera, ekitaldian izan ziren Oñatiko alkate Lourdes Idoiaga, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundietako ordezkariak eta Eusko Jaurlaritzakoak. Guztiek azpimarratu zuten Itsasmendikoi Artzain Eskolak lehenengo sektorea sustatzeko eta ingurumena eta paisaia zaintzeko egiten duen lana. "Eguneroko lan gogorrarekin, gure tradizioak eta kultura mantentzen ez ezik, basoak, zelaiak eta larreak zaintzen laguntzen dute artzainek. Euren ekarpenagatik ez balitz, paisaia desitxuratu egingo litzateke", esan zuen Pilar Unzalu Ingurumen eta Nekazaritza sailburuak. Eta gaineratu zuen: "Eusko Jaurlaritzak sektorea prestatzen eta profesionalizatzen laguntzeko asmoa du. Horixe da bidea artzainen bizi kalitatea eta lan baldintzak hobetzeko eta produktuen kalitate mailari eusteko".

**GEHIENAK EUSKAL HERRIKOAK**

Aurtengo prestakuntza programan parte hartu duten 13 pertsonetatik 10 Euskal Herrikoak dira eta beste hiruak Madril, Badajoz eta Txilekoak; emakumezkoa, bakarra; eta batez besteko adina, 27 urte. Lauk dituzte ardiak, zazpik inbertsioak egingo dituzte eta beste hainbestek formazioa sakontzen jarraituko dute. Irakasleek balorazio positiboa egin dute: "Talde zorrotza eta saiatua izan da aurtengoa".



Ekitaldia amaituta, talde argazkia atera zuten artzain berriek ordezkari politikoekin batera. E.J.

**etxeko leihotik**



**Iker Barandiaran** > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Existitzen ez garenok ere elkartzen gara

Ni bizi naizen etxeko leihotik ikusten ditudan pertsona guztiak ez ditut ezagutzen, ezta kalean ikusten ditudanak ere. Jende askotxo ezagutzen dut eta nire lanbidearen eta zaletasunen ondorioz, nik uste baino jende gehiagok ezagutzen nau, gainera.

Bestalde, egia da egunerokotasunak eta norberaren bizimoldeak ikusi nahi edo estimatzen dugun jendearengandik asko aldentzen gaituztela; eta egia da, baita ere, asko dudala beste batzuekin konpartitzeko eta bizitza ziztu bizian pasatzen dela.

Hori saihesteko, agian, badira zenbait baliabide: esaterako, azken sasoian hain modan dauden sare sozialak. "Hor ez bazaude, ez zara existitzen", esan zidaten behin. *Diario Vasco*-gatik ere gauza bera entzun nuen aspaldi... Jendea ezagutu, lagunen (ezagunen, haien ezagunen...) berri uneoro izan; esperientziak, bizipenak, lagunak, sentsazioak eta beste konpartitu; etengabe komunikatuta egon... Ez nago Facebooken kontra. Drogak eta beste gauza asko moduan ez da ona ezta txarra ere, erabileraren araberakoa da. Baina ez nau erakartzen; are eta gutxiago pribazitate hain gutxi daukagunean.

**"Aspaldiko lagun eta ezagunak aurkitzeko bidea, egun eta ordu zehatzetan"**

Aspaldiko lagun edo ezagunak –inon ikusten ez ditudanak– aurkitu gura baditut, nahikoa daukat noizbehinka Arrasateko merkataritza gune handira edo *prime-time*-ean Urkulura joanda. Han aurkitzen ditut horietako asko aurrez aurre.

**> Jon,** antza, gertaera ilun baten biktima izan da. Ikusitakoarekin eta orain arte azaldutakoarekin esamesa eta salaketarik egitea zilegi da, eta ezinbestekoa deritzot Anzaren familiarengandik hurbil dagoen mediku edo aditu bati autopsia egiten uzteari.

**> Paul** Austerrek erakutsi zigun kasualitateak ez direla inoiz kasualitateak izaten; eta alderdi abertzaleak bide berean mugitzen dabiltzan unean, beste behin, gauza arraro eta larriak gertatzen dabiltza egindako bidea zapuztu dezaketenak.

**EZBEHARRAK** > SUHILTZAILEAK

## Zubillagako suhiltzaileek 238 irteera egin zituzten 2009an, gehienak suteengatik

Kopuru hori 1.964ra ailegatzen da Foru Aldundiaren zortzi suhiltzaile etxeek egindako irteerak batuz gero

**G.A.** > OÑATI

Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako datuak dira horiek: lurraldeko zortzi suhiltzaile etxeek, orotara, 1.964 irteera egin zituzten 2009an. Irteeren arrazoiei dagokienez, gehienak salbamendu kasuak izan ziren –922–; eta suteak daude zerrendan hurrena –855–.

Debagoienera etorrita, Oñatiko Zubillagako suhiltzaileek 238 irteera egin zituzten: sua itzaltzera atera ziren 115 alditan, salbamenduak egitera 108 bider eta laguntza teknikoa ematera sei kasutan; gainerako bederatzi irteerak alarma faltsuek eragindakoak izan dira.

**ESKUARTZE AIPAGARRIENAK**

Joan den urtean izandako suteen artetik, Arrasaten izandako bat azpimarratu du Diputazioak: maiatzean Jokin Zaitegi plazan izandakoa; etxebizitza batean piztutako suaren eraginez, eraikin osoa hustu behar izan zuten.

Salbamenduen atalean, Arantzazun izandako bi eskuartze nabarmendu ditu: bihotzekoak emandako pertsona bat erreskatatu zuten ekainean, eta hanka harrapatuta zeukan zaldi bat abenduan.

Eskoriatzako AP-1 autobidean eta Oñatiko Arrikrutz kobetan, bestalde, simulazio bana egin zuten; eta hiruna, Ulma Forja eta Arcelor enpresetan.

**MUGIKORTASUNA** > GARRAIO ZERBITZUAK

## Tranbia bultzatzeko proposamena, atzera

PPk eta PSE-EEk ez dute onartu Aralarrek egindako legez besteko proposamena

**G.A.** > BERGARA

"Debagoieneko herriak lotuko dituen tranbia ezartzeko egutegi, plangintza eta txosten tekniko zehatza" eskatu dio Aralarrek Eusko Jaurlaritzari, baina popularrek eta sozialistek bat egin dute alderdi abertzalearen legez besteko proposamena atzera botatzeko. Sozialisten bozeramaile Txarli Prietok esan du proiektuak 500 alegazio inguru jaso dituela eta horrek adostasun falta erakusten duela.

**ARALARREN ERANTZUNA**

Oxel Erostarbe legebiltzarkideak aitzakiatzat jo du alegazioen argudioa: "Debagoieneko alkateek argi eta garbi adierazi diote Eusko Jaurlaritzari badagoela adostasunera heltzeko borondatea. PSE-EE da borondaterik ez duena; hala erakutsi du ezezko botoarekin".

Upategiak eta enologia mundua gertutik ezagutu izan ditu Luis Bujanda medikuak. Arabako Moreda herrikoa da Bujanda. Ardoaren eta osasunaren arteko erlazioa aztertzen hasi zen orain dela 15 urte inguru, eta horretan jarraitu zuen medikuntzan hasi zenean ere. Orain, Donostia Ospitaleko medikua da Bujanda, eta digestio-aparatuan espezialista da.

**Luis Bujanda** > Medikua

# "Ardoa antioxidatzailea denez, zelulen defentsa mekanismoa hobetzen du"



Luis Bujanda, eguenean, Elgetako Espaloia kafe antzokian.
GOIENKARIA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ELGETA

**Eguenean izan zen Luis Bujanda Elgetako Espaloian. Ardoaren eta osasunaren gainean jardun zuen; eta, ondoren, haren anaia Carlos Bujandak Fernandez Pierola ardoen dastatzea eskaini zuen.**

**Ardoa eta osasuna. Orain dela urte batzuk bi berba horien arteko erlazioak aurkakoa zirudien.**

Orain dela gutxi arte alkohola zuten edariak kutxa berean sartzen ziren; baina, orain, bereiztu egiten dira eta edari bakoitza aztertu. Bestalde, garrantzitsua da bai edari mota eta baita edari kantitatea ere. Horren arabera, ikusi da edari guztiek ez dutela mekanismo bera. Hala, ardoa, garagardoa eta destilatutako edarien arteko ezberdintasuna garbi ikusi da.

**Ardoa ona dela diozue, baina neurrizko kontsumoa gomendatzen duzue!**

Bai, neurria hartzea beharrezkoa da, bizitzako beste edozein arlotan bezala. Kontuan hartu, alkoholarekin pasatuz gero ondorioak kaltegarriak izan daitezkeela.

**Ze onura ditu ardoak? Adibidez, orain arte esan izan da kolesterolarendako dela ona.**

Gaur egun, hainbat ikerketa egin dira eta ikusi da ardoa gorputz aparatu askotan dela onuragarria. Hala ere, onura garrantzitsuena aparatu kardiobaskularrean ematen dela esan daiteke. Arterietarako da oso ona, eta baita kolesterol onarendako ere; horren ondorioz, arazo kardiobaskularrak izateko arriskua txikiagoa da ardoa neurriz kontsumitzen dutenen artean kontsumitzen ez dutenen artean baino.

Bestalde, badaude beste onura batzuk: adibidez, onkologia mailan tumoreak gutxitzen ditu. Uste da hori dela ardoak duen antioxidanteengatik. Hala, zelulek defentsa mekanismo hobea dute eta ez dira hondatzen.

**Azken ikerketen arabera, hainbat gaixotasun saihesteko ere ona da ardoa: besteak beste, diabetesa eta alzheimerra.**

Bai, onkologia mailan, adibidez, biriketako minbizia saihesteko ona da; biriketako minbizia da dagoen minbizi hilkorrena. Orokorrean, esan daiteke tumore mota batzuk saihesteko ona dela ardoa.

Neurologia mailan, bi efektu daude. Bat kardiobaskular mailan ematen da; adibidez, zerebroko infartuak izateko arriskua gutxitu egiten da. Oso garrantzitsua den beste efektua gaixotasun neurodegeneratiboetan ematen da. Batez ere, alzheimerrean ikusten da, ardoa neurrian kontsumitzen dutenek gaixotasun hau izateko arrisku txikiagoa dutela.

Infekzioei dagokienez ere, onuragarria da ardoa; izan ere, alkoholak edo ph-ak eragina du bakterietan. Gastroenteritisa edo beste infekzio batzuk izateko arriskua jaitsi egiten da.

**Garrantzitsua dena alkohola da? Izan ere, batzuk pentsa dezakete zergatik ez den gomendatzen mahatsa kontsumitzea.**

Hainbat gauza daude. Batetik, ardoak alkohola du; hain zuzen, %12; bestalde, ur mordoa du, oso garrantzitsua dena; eta, baita ere, baditu sustantzia mordoa ardoari kolorea ematen diotenak. Horiek izango lirateke polifenolak. Osasunerako oso onuragarriak dira polifenolak, batez ere, antioxidatzaile bezala, te berdea izan daitekeen moduan.

Mostoak ere polifenolak ditu, baina ez ardoak beste –ardoari kolore beltza ematen diotenak dira polifenolak–.

**Ardoa onuragarria izan dadin, dieta orekatua eramatea ere garrantzitsua da?**

Bai, ezinbestekoa da. Mediterraneoko dieta oinarritu izan da zerealetan –karbohidratoak–, oliba olioan eta ardoaren kontsumoan. Frutak, berdurak, karbohidratoak... eta ardoa ere hor sartuko litzateke. Beti ere, neurriz kontsumituz gero; gizonezkoek egunean bi edo lau baso eta emakumezkoek bi edo hiru.

**Pertsona guztiei gomendatuko diegu ardoa hartzea edo badaude ardoa hartu ezin duten taldeak?**

Ezin dute hartu haurrek, adibidez. 16 urtetik beherakoek ezin dute ardoa edan. Orain dela 30 urte inguru, jende askori produktu kinatuak ematen zitzaizkion. Baina orain ez da horrelakorik egiten. Ardoa edan ezin duten beste batzuk dira: gaixotasun epatikoak dituztenak, botikaren bat hartzen dabiltzanak, haurdun daudenak, lanbide bereziak dituztenak... izan ere, alkohola neurrian hartu arren, atentzioa gutxitu dezake.

**Gainera, ardoa osasunerako ona izateaz gain... gozamen bat da ardo on bat dastatzen jakitea!**

Bai, gozagarria da. Hori da ardoaren bertuteetako bat. Elikadura on batekin, eta aktibitate sozial bezala, beti ere neurriz hartuta, oso atsegina da ardoa.

Nik uste dut sustatu egin behar dela bere kontsumoa; baina, ez gauza isolatu bezala, baizik eta elikadura baten barruan eta jende artean gozatzeko.

NEURRIA

**"Ardoa neurrian hartzea beharrezkoa da, bizitzan beste hainbat gauza bezala"**

ONURAGARRIA

**"Ardoa gorputzaren aparatu askorentzat da onuragarria, batez ere kardiobaskularrentzat"**

DASTATZEN JAKITEA

**"Kontsumoa sustatu behar da baina ez gauza isolatu bezala, baizik eta jende artean gozatzeko"**



## Arantzazuko Santutegia

Arantzazuko auzoa, 8 / OÑATI
943 78 13 13
*www.hotelsantuariodearantzazu.com*

**Eskaintza**
- 46 logela
- 200 pertsonentzako jangela
- Eguneko menua eta karta
- Familientzako menuak asteburuetan
- Jaunartzeak, ezkontzak eta bazkari bereziak
- Enpresentzako aretoak eta bazkariak

**Egunero zabalik**



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

**Berezitasunak**
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 *www.etxeaundi.com*

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**

# *Jatetxe Gida*





## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
*www.restaurantelasa.com*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**



## Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

**Berezitasunak**
- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

**Igandeetan itxita**

## kale inkesta

# Tranbiaren proiektua alde batera utzi eta bus azkarra egitekoak dira orain. Zer iruditzen zaizu?



**Lourdes Errasti**
Langilea
Bergara

Posible da hori egitea? Nik ez dut lekurik ikusten hori egiteko. Autoak non sartuko lirateke? Nire ustez, lehengo trenbidea aprobetxatuta tranbia egitea posible bada, hobeto. Irtenbide hobea izango delakoan nago.



**Tere Errasti**
Erretiratua
Bergara

Ez dakit, beharbada hobeto izango da. Egia da, beharra dagoela garraio publikoa hobetzeko, eta printzipioz, nik ondo ikusten dut aukera hori: erraila autobusendako bakarrik izatea, karabanarik ez egiteko.



**Lucas Diez**
Erretiratua
Bergara

Ondo iruditzen zait aukera hori, baina ikusi egin beharko da egingo duten edo ez. Uste dut nik ez dudala ezagutuko. Zerbitzua hobetu beharra dago, eta uste dut egin litekeen proiektua dela autobus azkarrarena.



**Nuria Arnedo**
Langilea
Bergara

Garraio publikoa hobetzeko bada ondo ikusten du, behar handia dagoeta. Baina, non egingo dute? Izan ere, errepidea mendia eta errekaren artean dago eta nik ez dut lekurik ikusten beste errail bat egiteko.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI
**> Arantzazurako errepidea oso gaizki dago; batez ere, txirrindulariendako da arriskutsua**

Oñatiko irakurle baten deia jaso dugu. Esan digu txirrindularia dela, eta egun hauetan, eguraldi onarekin kanpora irten dela. Arantzazura joan zen aurrekoan, eta benetan haserre zegoen hango errepidearen egoerarekin. "Nola liteke errepidea egoera horretan izatea? Zulo asko daude, eta egoera denentzat txarra den arren, bereziki arriskutsua da bizikletan gabiltzanondako", zioen.

BERGARA
**> Matxiategi kalean bigarren ilaran ez aparkatzeko jarri duten "mekanismoa" gustuko dute herritarrek**

Bergarar bat GOIENKARIA-ko bulegora etortzera animatu da, udaltzainek Matxiategi kalean jarri duten "asmakizuna" txalotzeko. "Mekanismo ona dela uste dut; horrela autoek ez dute bigarren ilaran aparkatzen eta, gainera, egin dutena merkea da Udalarendako...", esan digu, pozik.

BERGARA
**> Lokatza txirrindulari elkartea zoriontzeko idatzi digu irakurle batek**

"Egubakoitzean Gorlako igoeran izan nintzen, eta benetan zoriontzekoa da Lokatza taldeak egiten duen lana. Oso ondo antolatu zuten guztia", idatzi du irakurleak. Eta begi onez ikusi du, baita ere, han goian egon zirenei pintxoak banatzea, doan.

## usteak uste

**Arantzazu Ezkibel**

# Deittu eta galdu dirua

Ointxe arte betiko kanalak ikusi dittut etxeko telebisiñuan; baina, oin, telebista digitalarekin kanal aukera zabalagua dakot etxian.

Egixa esan, kanal aukera gehixau dakot, baina eskaintza, ez pentsau zabalaua danik. Bai lehen eta bai oin, ez dau mereziu dauen gauza askorik. Inoiz topaitten dot gustuko zerbait, eta hari begira pasaitten dot denboria; baina, egixa esan, gero eta gutxiu ikusten dot telebisiñua.

Esan bihar dot, baina, minutuak pasaitten dotela *Call TV* programa horreiri aho zabalik begira. Zela leike, baina, jendiak deiketia? Jendia ez da konturaketan iruzurrak diala? Eta, zela leike programa mota horreik onartuta egotia? Ez dakit, neri pare bat aldiz tokatu xat parian holako programa bat tranpetan ibilttia... bueno, hori da uste dotena, ze bukaeraraino ez dot inoiz itxoin.

## zorroztailea



**Elena Laka**

# Zerbitzu publikoen kostua

"Gobernuak osasun zerbitzuen kostua jakitera emango die gaixoei. Fakturak egingo ditu, baina ez ditu kobratuko. Osasun Ministeritzak eta Kontseilaritzak hitzarmen bat egingo dute. Hitzarmen horren baitan, botiken arrazoizko erabilera bultzatzeko informazio bideak garatuko dituzte, osasun zerbitzuen kostuak jakinaraziz".
El Economista > 2010-03-19


elEconomista.es | España
El Gobierno dará a conocer el coste de los servicios sanitarios a los pacientes
El Ministerio de Sanidad y las Comunidades Autónomas han alcanzado un acuerdo para lograr un ahorro en el gasto farmacéutico de 1.500 millones de euros, mediante un Real Decreto que se aprobará la próxima semana, en el marco de un "gran pacto" para garantizar el futuro del actual modelo sanitario. Entre otras medidas se encuentra la que dará a conocer el coste de los servicios sanitarios a los pacientes en forma de factura.
"Ahorro directo" al ciudadano
Otras actuaciones que se desarrollarán este año, para lograr la "equidad" del sistema, serán **la aprobación de una norma para la universalización de la**

Eskerrak eman ditut osasun sistema publikoaren erabiltzaile izatea egokitu zaidan bakoitzean. Anbulatorioan, larrialdi zerbitzuetan nahiz ospitaleko egonaldietan, gaixoa ni ala ingurukoko bat izan. Beti eskerrak eman dizkiet bertan atenditu nauten profesionalei, eta baita patu ala dena delako demiurgoari ere, nire erditzea lehen munduko herrialde aberats batean kokatu zuelako.

Edozein gaixotasun, osasun gorabeherarik txikiena, eta beti daukazu mediku bat gertu, eta zentru bat, eta baliabide batzuk. Edozein profesional behar duzula, edozein azterketa, ebakuntza, tratamendu... Guztia eskura, erraz, gertu, eta eraginkor. Osasun sistemako medikuek, erizainek, laguntzaileek... beti tratatu naute ondo. Eta jaso dudan zerbitzu bakoitzari eskerrak emanez erantzun diot.

Ulerkaitza deritzot osasun zerbitzuak erabiltzerakoan beti marmarka dabilen jende horri. Larrialdi zerbitzuetan uste baino gehiago itxaron behar izan duelako, edo beste arrazoi bat tarteko. Osasun zerbitzuak baditu hobetzeko puntuak, baina bakoitzari berea: onartu dezagun osasun zerbitzu publiko, doako eta unibertsala gizateriaren konkista handienetako bat dela.

> **"Osasun sistema publikoa, pribilegio garesti bat, jomugan ipini dute"**
>
> **"Goazen jakitera beste zerbitzu batzuen kostua ere"**

Behi mehen garaian gaude ostera, eta agintariek gureizeak atera dituzte zerbitzuen gastuak murrizteko. Osasun sistema, pribilegio garesti bat, jomugan ipini dute, eta asmoa da herritarrak jakin dezala zenbat gastatzen duen sistemaren erabiltzaile denean, horren jakitun, gehiegikeriarik ez egiteko. Gastuak kontrolatuko ditugu baldin eta kostatzen zaigunaz jabetzen bagara. Halako ideia bikaina, ordea, zergatik aplikatu bakarrik osasun zerbitzuei? Aurrekontu publikoak kontrolatzeko helburuarekin, goazen jakitera zenbat kostatzen zaizkigun beste zerbitzu batzuk: Zenbat kostatzen zaizkigu Borboien bidaiak? Hauteskunde kanpainak? Agintarien lanorduak? Zenbat balio du ertzain talde batek kentzen duen pankarta batek? Zenbat ordaintzen dugu probintziako futbol talde famatuaren gol bakoitza?

Zeren, agian kostu guztien informazioa daukagunean, erabakiko dugu zerbitzu batzuk zentzuz erabiltzea, edo agian erabakiko dugu zerbitzu batzuk, zuzenean, ez erabiltzea.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Asteburuko erredakzioaren arduraduna** Goiatz Arana **Erredakzioa** Arantzazu Ezkibel, Maider Arregi, Larraitz Zeberio
**Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

# Herriak

**Arrasate** > 12 **Bergara** > 13 **Oñati** > 14 **Aretxabaleta** > 15 **Eskoriatza** > 15
**Antzuola** > 16 **Aramaio** > 16 **Elgeta** > 16 **Leintz Gatzaga** > 16



**> ARRASATE**
Baserritarrak kezkatuta, Udalak landutako bideen inbentarioa dela-eta **> 12**



**> OÑATI**
Errepide sarea hobetzeko ahalegina eskatu diote herritarrek Olanori **> 14**



**> ESKORIATZA**
Gaur hasiko dituzte Aranburuzabalako hegaleko lanak **> 15**

**BERGARA** > AISIA

# Jardun euskara elkarteak gertu ditu gaztetxoendako X. olinpiadak

**LAU ZAPATU**
Apirilaren 24an egingo dute lehenengo saioa; maiatzaren 15ean, berriz, azkena

**TALDEEI DEIA**
6-8 partaideko taldeak behar dituzte; izenematea zabalik dago kultura etxean



Bergarako gazteak, 2007an Jardunek antolatutako olinpiadetan parte hartzen. ARTXIBOA

**LARRAITZ ZEBERIO** > BERGARA
Hamarkada beteko dute aurten Bergarako Jardun euskara elkartearen gaztetxoendako olinpiadek. Lehen hezkuntzako 4, 5, eta 6. mailako gazteei zuzendutako proposamena da lau zapatu arratsaldez koadrila arteko jokoak egitea. "Apirilaren 24an, herri kirolak egingo ditugu Munibe plazan: zaku karrera, sokatira, arto-biltzea, txingak... ", azaldu du programako koordinatzaile Saioa Garitanok. "Maiatzaren 1ean, bolotan eta tokan egingo dugu San Joxepe erretiratuen elkartean; maiatzaren 8an, igerilekuko frogak egingo ditugu Agorrosinen; eta maiatzaren 15ean, amaitzeko, jarduntxon jolasa egingo dugu. Lurrean ipintzen den mahai-joko erraldoia da eta lauki bakoitzak proba bat gordetzen du".

Jakina da gazteei zuzendutako ekimen honek helburu bikoitza duela: alde batetik, herriko gaztetxoei aisiarekin lotutako proposamena egitea; eta bestetik, denbora horretan euskaraz jarduteko aukera ziurtatzea. Aurreko urteetako esperientzia ona izan da bultzatzaileek esan digutenez, eta badago oraindik zer egin esparru horretan.

**IZENEMATEA ZABALIK**
Jardun euskara elkarteak apirilaren 16ra bitartean jasoko ditu izen emateak kultura etxeko bulegoan. Talde bakoitzeko, gaztetxoek gutxienez sei eta gehienez zortzi laguneko koadrila osatu behar dute. Eskolako, koadrilako edo auzoko lagunak izan daitezke. Eskatzen zaiena da taldeari izena ipintzea, eta froga ezberdinetan kamiseta edo blusa batekin parte hartzea. "Hamargarren olinpiadak ditugu eta ikusten duguna da, euskarazko aisia bultzatzeaz gain, ekimen honetan eskola eta ikastola ezberdinetako gazteak elkartzen direla. Horrek euren arteko komunikazioa eta harremanak hobetu egiten ditu", esan du Garitanok. "Aurreko edizioetako balorazioa oso positiboa izan da eta horrela jarraitzea nahiko genuke".

**SARIAK ESKURAGARRI**
Olinpiadetako probak zapatu arratsaldetan egingo dituzte aurten ere. Lau arratsalde lagun artean igarotzeko aukera emateaz gain, urtero legez, Jardunek sariak ere banatuko ditu talde parte-hartzaileen artean. "Jardunaldi bakoitzean taldeek puntuazio bat lortuko dute eta, amaieran, puntu horien batuketa egingo dugu", adierazi du Saioa Garitanok. "Talde irabazleak sari nagusia jasoko du. Gainerako taldeek ere jasoko dituzte sariak; denen artean egingo dugu zozketa".

Aurtengo sari nagusia momentuz erabaki gabe dagoela esan digu olinpiadetako koordinatzaileak. "Oraindik ez dago finkatuta, baina normalean irteera bat izaten da, egun pasa bat talde osoko kideendako". Olinpiadetan parte hartzera animatu dituzte Jardun elkartetik Bergarako neska-mutikoak. Argibidetarako Jardunen bulegoko telefono zenbakia utzi dute; 943 76 36 61 telefono zenbakira deitu beharko dute, beraz, zalantzaren bat duten gaztetxoek.

**Saioa Garitano** > Haur eta gazte saileko arduraduna

## "Gazteleraz egiteko joera handia da gazteen artean"

L.Z. > BERGARA
**Gazte olinpiadak jokatuko diren egunetan Jardun elkarteak hiru begirale ipiniko ditu. Koordinazio lanak Saioa Garitanok egingo ditu.**

**Prest dituzue gaztetxoendako olinpiadak?**
Horrela da. Apirilaren 24an egingo dugu lehenengo saioa eta maiatzaren 15ean azkena.

**Helburua da aisia eta euskara lotzea, ezta?**
Bai. Zoritxarrez gazteleraRAko joera handia dago oraindik ere gazteen artean. Adin horretan hasten dira, gainera, erdaraz egiten. Pentsatzen dugu euskararen gaia landu beharra dagoela adin tarte horretako gazteekin. Bultzatu ere egin behar da euskararen erabilera.

**Lotzen dituzte Olinpiadak eta euskara?**
Bai. Nire ustez batzuk badakite Jardun euskara elkarte bat dela, eta olinpiadetan euskaraz egin behar dela. Baina beti dago gazteleraz egiteko joera handia duen gazteren bat. Egia da esan egin behar izaten diegula olinpiadetan euskaraz hitz egin behar dutela.



KEPA MARTELO



Herriko trikitilariekin eta Sustrai Colina eta Iker Zubeldia bertsolariekin egin zuten poteoa zapatuan. JOSETXO ARANTZABAL




Intxortako igoeran parte hartu duten hiru lagunak, lasterketa hasi aurretik. L.Z.



Urteroko bazkaria gaztetxe barruan egin dute aurten. J.A.

**ELGETA** > GAZTETXEAREN XIV. URTEURRENA

# Gaztetxearen urtemugan kirola, bazkaria eta dantza

Ekitaldi nagusiak zapatuan egin zituzten; bezperan, AHTri buruzko bi bideo ikusi zituzten

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Badira 14 urte Elgetako gaztetxea martxan dela. Urteroko hitzordua da urteurrena ospatzea, eta aurten ere ez dute hutsik egin. Ekitaldi nagusiak zapatuan egin zituzten, baina bezperan bideo emanaldia egin zuten gaztetxean. Bi dokumental ikusi zituzten. Lehenengoan, Italiako Val di Susso zonaldean tren lasterraren proiektuaren inguruan sortutako erresistentzia eta istiluak izan zituzten ikusgai. Bigarrenak, gertuagotik ezagutzen dugun AHTren proiektua zuen jomuga.

Gaiari buruzko mahai ingurua ere egitekoak ziren, baina berandutu egin zitzaien eta asmo hori bertan behera lagatzea erabaki zuten.

**INTXORTARA IGOERA**

Bigarren urtea da gaztetxeak lehen herriko jaietan egiten zen igoera berreskuratu duela. Aurten, hiru lasterkarik egin dute. 10:00ak jota abiatu ziren Salbador kaletik gora.

Txomin de Vega izan da, aurten, azkarrena. 24 minutuan egin zuen Intxortara joan-etorria herriko plazatik abiatuta. Bigarren, minutu bateko aldearekin, Sebastian Arantzabal iritsi zen helmugara. Hirugarren, David Peñalverrek egin zuen.

De Vegak igotzen hasi eta gutxira jo zuen erasoa. Laster atera zien aurrea beste bi lasterkariei eta alde hori helmugara iritsi arte mantentzea lortu zuen. Gauzak estuago egon ziren, hasiera baten behintzat, Arantzabalen eta Peñalverren artean. Zabaletakoak aurrera egitea erabaki zuenean, ordea, laster utzi zuen atzean Peñalver. Irabazleak bazkarirako txartelak eskuratu zituen.

**POTEOA ETA BAZKARIA**

Eguerdian eta trikiti doinuek erakarrita, poteoa egin zuten herrian hainbat lagunek. Izen handiko bi bertsolari izan zituzten, gainera, lagun: Sustrai Colina urruñarra eta Iker Zubeldia zegamarra. Bertsolarien adar jotze eta txantxen artean egin zuten herriko tabernetatik buelta, bazkaltzeko ordua iritsi bitartean. Gaztetxeko trikitilarien lana ere aipatzekoa da.

Gosetuta eta poteoarekin alaituta, gaztetxera jo zuten urteurreneko bazkaria egitera. Eguraldiaren ezegonkortasuna ikusita, gainera, gaztetxe barruan egin dute aurten bazkaria. Lagunarteko bazkaria izan zen, eta Sustrai Colina zein Iker Zubeldia bertsolariek lan polita egin zuten bazkalondoa alaitzen.

**GAUEAN, DANTZALDIA**

Bazkaria egindako leku berean egin zuen kontzertua, gauean, Akerbeltz taldeak. Afari pasada egインda, dantzari ekin zioten gaztetxean bildutakoek. Akerbeltz taldeak euskal kantu herrikoiak jotzen ditu, eta erakustaldi ederra egin zuen zapatuan Elgetan.




Eguenean, 25 bat lagunek jarraitu zituzten ardoaren gainean Fernandez de Pierola anaiek emandako azalpenak. I.A.

**ELGETA** > ARDO DASTATZEA

# Pierola etxekoekin gauza asko ikasi zituzten Elgetan

Egunean 400 zl ardo edatea osasungarria dela esan zien, datuak eskuan, Luis Bujanda medikuak

**GOIENKARIA** > ELGETA

Fdez Pierola upategiko Bujanda anaiekin gustura egon ziren eguenean 30 bat lagun. Espaloian egin zuten ardo-dastatzea eta ardoa edateko gomendioa egin zuen Donostiako Ospitaleko sendagile Luis Bujandak. Gizonei, egunean, lau basoerdi edateko esan zien, eta emakumeei, 2-3. Frogatuta ei dago neurrian edaten dutenak luzeago bizi direla.

**DOZENA ERDI ARDO**

Sendagilearen aholkuen ondotik etorri zen Pierola upategiaren ardo-dastatzea. Merkatuan dituzten zuriak, merkaturatzekotan dabiltzanak, betiko Pierola... dozena erdi ardo eman zituzten probatzera. Pozik irten ziren ekitaldtik parte-hartzaileak. Ardo ederrak dastatzeaz gain, opari emandako botila ardo bana eraman zuten etxera.



30 lagun inguruk hartu dute parte Zuhaitz Egunean eta 25 lizar eta bost hagin landatu dituzte Aloñan. ALOÑAKO LAGUNAK

**OÑATI** > ALOÑAKO ZUHAITZ EGUNA

# Aloñako magalean 25 lizar eta bost hagin landatu dituzte

Elurragatik astebetez atzeratutako Zuhaitz Eguna atzo, domeka, ospatu zuten azkenean

**MAIDER ARREGI** > OÑATI

Aurtengo Zuhaitz Eguna atzo, domeka, ospatu zuten Aloñako magalean. Zehazki, goialdean dagoen pistaren kontra landatu zituzten zuhaitzak bertaratu ziren boluntarioek. Foru Aldundiko Imanol Artola basozainak eta Oñatiko Natur Eskolako Imanol Biainek zehaztutako lekuan egin zituzten landaketak.

Guztira, 30 zuhaitz landatu dituzte aurten: 25 lizar eta bost hagin. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, eguna lainotsua eta umela izan arren, euririk ez zuen egin eta 30 zuhaitzen landaketa, arazo eta zailtasunik gabe egin zuten. Inazio Irizarrek azaldu digunez, boluntarioen arteko giroa oso ona izan zen eta gustura aritu ziren elkarlanean. Hala, Aloñan elkartutako 30 lagunek, auzolanean, gogor lan egin zuten bizpahiru orduz, goizeko 09:30ean hasita.

Zuhaitz Eguna astebetez atzeratu behar izan dute aurten, elur asko zegoelako Aloñako magalean.

**DATORREN URTERAKO PREST**

2011ko urtarrilaren 1ean zabalduko da boluntarioen zerrendan izena emateko epea. Horrela, aurten parte hartu gabe gelditu direnek datorren urterako eman dezakete izena *aloinalagunak@gmail.com* helbide elektronikora mezua bidalita. Xehetasunak eta informazio guztia, *aloinalagunak.blogspot.com* blogean duzue. Izan ere, bi bide daude datorren urteko Zuhaitz Egunean parte-hartzeko: lehena, Fernando Maiztegiri esanda, Patrue Kaleko bere tailerrean; eta bigarrena, aipatutako posta elektronikora mezua idaztita. Antolatzaileek azaldu dute urtero antolatu nahi dutela Zuhaitz Eguna Oñatin. Beraz, eta dena ondo bidean badoa behinik behin, datorren urtean otsailean egingo dute: 2011. urteko otsailaren 27rako deitu dute haginak eta lizarrak landatzeko eguna. Interesa duzuenok, beraz, izena eman dezakezue 2011ko urtarriletik aurrera.

**Maria Arana** > Baserritarra

# "Zapatuko azoka motel joan zen; automobila beteta bueltatu ginen"

**GOIATZ ARANA** > ARRASATE

**Arrasateko Ikutixo baserriko Maria Aranak ez zuen hutsik egin zapatuan, Seber Altuben. Salmentak ez ziren hark nahi moduan joan, ordea; otsaileko azokan baino dezente gutxiago saldu zuen.**



Arana, azokako saltokian. G.A.

**Zer moduz joan zen zapatuko azoka?**

Ez oso ondo, baxu egon zen. Eguerdian, automobila produktuz beteta bueltatu ginen etxera; seinale txarra da hori. Eguraldia ondo portatu zen eta, beraz, horri errurik botatzerik ez dago, baina zerbait gertatu zen.

**Ohi baino asteburu luzeagoa zela-eta, jendea kanpora irten zen akaso?**

Ez dakit, ez da erraza izaten asmatzea: batzutan, ziztu bizian, ekarritako guzti-guztia saltzen dugu; aldiz, beste batzutan, ilusioz beteta etorri eta gauza asko soberan geratzen zaizkigu.

**Gainerako baserritarrek ere gauza bera zioten?**

Bai, bai, nik moduan hitz egin zuten besteek ere: zapatuan saltzera etorritako inor ez zen etxera konforme bueltatu, ogia-eta ekarri zutenak bakarrik.

**"Ez da erraza izaten asmatzea: batzutan aise saltzen da dena; beste batzutan, aldiz, ez"**

**"Negu gogorraren ondotik, produktuak atzeratuta datoz; giro epela behar dugu orain"**

**Ze produktu eraman zenituen zuk azokara?**

Denetarik: azenario, porru, berakatz, kipula, zarba, arbigara, erremolatx, baba, arto-irin, patata...

**Eta zerk izan zuen estimazio gehien?**

Berakatzak, berakatz berriak. Dezente saldu genituen, euro baten.

**Negu gogorra izan da aurtengoa. Zein eragin izan du horrek zuen produktuetan?**

Elurra eta izotza izan ditugu maiz eta hezetasun asko. Produktuak atzeratuta datoz, ondorioz.

**Udaberriarekin etorriko dira tomateak, ilarrak...**

Bai, produktu asko, baina ezinbestekoa da eguraldiak laguntzea, sekulako eragina du horrek: giro epela behar dugu eta, tarteka, euri apur bat ere bai.

**ARAMAIO** >TXALAPARTA

# Txalaparta gertutik ezagutu zuten zapatuan

Txatxilipurdik antolatuta, zapatuan, txalaparta ikastaroaz gozatzeko aukera izan zuten aramaioarrek. Hala, txalapartaren mundua gertutik ezagutzeko eta bertan murgiltzeko asmoz, makilak hartuta gazteren bat ere animatu zen. "Jende asko gerturatu da txalaparta ikastarora. Hala ere, parte hartzera, ez dira horrenbeste gaztetxo animatu", azaldu digu Maitane irakasleak.

Txatxilipurdik Aramaioko gazte lokaleko gaztetxoendako ikastaro gehiago ere antolatu ditu. Apirilean, esaterako, hankapalo ikastaroaz gozatzeko aukera izango dute.




TXATXILIPURDI

**ZERBITZUAK** > BIDEEN INBENTARIOA

# Baserritarrek asteon dute Udalari kezkak azaltzeko asmoa

Kulturateko arkupean bideen inbentarioaren erakusketa-kontsulta zapatura arte zabalik egongo da, 17:30etik 20:30ak arte



Herritar bat bideen inbentarioaren gaineko erakusketa ikusten, Kulturateko klaustroetan. U.M.

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Batzarrak egiten ibili dira egunotan Arrasateko baserri-auzoetan, Udalak landu eta Kulturaten erakusgai ipini duen herriko bideen inbentarioa dela-eta. Gehienek erabaki dute ordezkariak bidaltzea asteon, sortu zaizkien kezka eta zalantzak argitzeko.

Kezka eragin du gaiak, adibidez, Garagartzan.

Hain zuzen, garagartzarrek adierazi gura diote Udalari euren ustez bide gehienak pribatuak direla, eta publikoak direnen kasuetan ere (oso gutxi) azken 60 urte baino gehiagoan eurak (baserritarrak) arduratu direla bide horiek zaintzeaz. Gaineratu dute kasu askotan handitu egin behar izan dituztela bideok lursail propioak erabilita, kamioiak pasatu ahal izateko, eta orain arte Udalak ez duela bide horien gaineko interesik erakutsi.

Jakinarazi dute, baita ere, eskritura askotan ez dela azaltzen ezta biderik dagoenik ere.

Horrekin batera, etorkizunarekiko kezka ere helarazi gura dute: "Orain zer, Udala arduratuko da mendien mantenuaz eta guk kanona ordaindu beharko dugu? Eta beste kezka bat da ea Udala benetan arduratuko den bideak zaintzeaz".

Desadostasuna erakutsi gura dute, Udaleko ordezkariak ez direlako eurekin egon kontu hau landu aurretik.

Bukatzeko, argi utzi gura dute, orain arte, eta nahiz eta mendi-bideen ardura eurena izan, sekula ere ez dutela oztopatu paso bidea. Hau da, bertatik pasatzeko beharra zuen kamioi, auto edo herritar guztiei utzi dietela bide horiek erabiltzen.

**GESALIBAR ETA MUSAKOLA**
Garagartzarren moduan, Gesalibar auzoko baserritarrak ere kezkatuta daude. Batzarrak egin ostean, jakinarazi dute "kezka nagusia" dela ea aurrerantzean zeinen kontura izango den bideen mantenua: "Gaur egun araututa dago lursailen jabeek eta Udalak egin beharko dutela, Udalak gehienbat. Baina garbiketak-eta auzolanen bidez egiten ditugu".

Bestalde, Musakolako baserritarrek ere erabaki dute Udalera jotzea. Espe Agiriano auzoalkateak nabarmendu du Udalak gura duela "mendira doazen bide guztiak berarenak izatea, paseo turistikoak egiteko". Gaineratu du badaudela bide batzuk asfaltatuta daudenak, eta akaso horiek bai izango direla Udalarenak, baina ez guztiak. Agirianok gogora ekarri gura du, baita ere, orain arte eurek zaindu dituztela mendi bideok: "Adibidez, euriekin-eta lurra jausi zen bide batzuetara eta geu ibili ginen garbitzen; pentsatu ere ez genuen egin udaletxera joatea".

**URIBARRITARRAK PIBOTE ESKE**
Aurrekoen moduan, uribarritarrek ere badute asmoa Udalera joateko: "Lurjabe gehienak" joango dira, Jone Bergaretxe ordezkariak esandako moduan. Kezka dute, esaterako, baserritar gehienen moduan, bideok behin publiko eginda zeinek zainduko dituen. "Elurra egiten duenean etorri egingo dira? Pinuak-eta ateratzen ditugunean kontrola egingo dute?", galdetu dute. Eta zera eskatu gura dute: "Salturriraino badaude 19-20 lurjabe, eta haiek beharrarengatik handitu egin dituzte bideak urtetan (bi metro zituztenek orain lau metro dituzte); batzuek dirua ipinita eta beste batzuek terrenoa emanda zabaldu dituzte bideak". Eta orain jendeak dioena da bide osoa ez litzatekeela libre izan behar. Pasatzeko bidea utziko dutela, baina bideen erabilera mugatu egin beharko litzatekeela: "Kamioiak-eta bakarrik pasa ahalko liratekeke, lurjabeenak; gainerakoen pasoa mugatzeko piboteak ipini beharko lituzkete".

**UDALAN EGOERA LASAIA**
Udala baserri auzoan, berriz, ez dute, oraingoz, kexu edo bestelakorik entzun. Martin Uribarren auzo-alkateak esandako moduan, Arrasateko Udalak aurkezpena egin zuenean parte hartu zuten, eta, horrez gainera, badaki auzotarrak izan direla erakusketa ikusten. "Akaso partikular moduan-edo norbaitek aurkeztu du zerbait", esan du auzo-alkateak, baina auzo moduan ez dutela ezer komentatu gaineratu du.

ARRASATEKO UDALAREN IKUSPUNTUA

## Udalean gertu daude baserritarren kezkak entzun eta berba egiteko

Arrasateko Udalean galdetuta, ondo hartu dituzte baserritarren kezkak. Adierazi dute horixe dela, justu, Kulturateko erakusketa-kontsultaren helburua: landaguneko bizilagunen ekarpenak batzea. Gogora ekarri dute bideen inbentarioa egitearen helburua dela bidesarea egitea eta jendeak adieraztea zerekin bat datorren eta zerekin ez; eta bat ez badator, zergatik ez. "Orain da momentua hori guztia adierazteko", esan dute Ingurumen Sailetik. Azpimarratu dute, baita ere, egin duten inbentarioa artxiboetako informazioan oinarrituta egin dutela: "1899an egin zen inbentario bat bideen gainekoa; orduan ere erakusketa egin zen. Hor kontsultatu dugu. Beste dokumentu batzuk ere baditugu, administrazioak, Letona artxiboa, eskritura batzuk... Artxibotan bilatu dugun informazioa da, datuetan oinarritua". Nabarmendu dute Udalak markatutako bideak ez direla "ehuneko-ehun zuzenak", eta ez dutela, ezta ere, "zergatik izan". Eta adierazi dute orain dela momentua informazioa kontrastatzeko landa-gunean bizi direnekin, baserritarrekin, eurek ezagutu dutelako bertatik-bertara informazio hori. Momentu honetan da parte hartzeko fasea, inbentarioa aberasteko: "Adibidez, justu gaur (eguaztena) egin dugu zuzenketa bat. Parte hartzeko aukera eman zaie, eta transmititu behar den mezua da orain informazio guzti-guztia batu egingo dela eta kontrastatu. Kasuz kasu joango gara baloratzen eta aztertzen. Oso kasuistika handia dago. Bidez bide aztertu behar da gaia". Inbentarioa egitearen garrantzia ere berretsi dute udal ordezkariek: "Helburua da bideen sarea osatzea. Kontuan hartu behar da, baita ere, hemendik urte batzuetara informazio asko galdu egingo dela". Bukatzeko, Udalak aitortu eta eskertu egin gura die baserritarrei orain arte bideak zaintzen egin duten lana, "askotan esfortzu ekonomiko eta pertsonal handia egin dutela badakigu", azaldu dute.

**GIZARTEA** > OSPAKIZUNAK

# Belaunaldi zahar eta gazteak, Danok Bat elkartean

**U.M.** > ARRASATE
Elkarteko ohorezko 16 bazkideei behar den moduko omenaldia eginez, elkartearen ereserkia estreinaldikoz entzunez eta elkarte gastronomiko batek ematen duen lagun arteko giroaz gozatuz ekin zieten joan zen eguaztenean (elkartearen sorrera egunean, 1935ean) Danok Bat elkarteko bazkideek 75. urteurreneko ospakizunei.

Martxoko hurrengo hitzordua etzi, eguaztena da. Zigarro puruei buruzko hitzaldia antolatu dute, 19:30erako. Hitzaldira edozein joan ahal da, baina adi ibili, leku kontuengatik-eta komeni delako aldez aurretik izena ematea.

Gero, zapatuan, martxoaren 27an, bazkideen arteko bazkaria egingo dute, 14:30ean. Aldez aurretik, 13:00etan trikiti-poteoa egingo dute. Bazkarirako izena emateko azkeneko eguna martxoaren 21a da.

Hori martxoari dagokionez, izan ere, ekainera arteko ekitaldiak antolatu dituzte; adibidez, jardunaldi gastronomikoak egingo dituzte apirilean eta maiatzean, SUDCeko mus txapelketa jokatuko dute maiatzean, eta pilotaren gaineko hitzaldi eta partiduak izango dira ekainean.

**EMAKUMEZKOAK ETORKIZUNEAN**
Elkarteak 108 bazkide ditu gaur egun. Guztiak ere gizonezkoak, "oraingoz". Denborarekin "emakumeak ere" izango direla uste dute belaunaldi berriek.


Inaxio Azkuyek hartu zuen hitza aurkezpen ekitaldian. IÑAKI LASANTA

**EUSKARA** > ELKARTEAK

# Jardunek 20. urtemuga ospatuko du apirilaren 24an

Goizean hasi eta gauera arteko ekitaldi sorta antolatu dute egun horretarako

Lehendakari berria izendatu du elkarteak: Itsaso Mendizabal

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Jardun euskara elkarteak urteko batzarra egin du. Halakoetan ohikoa den moduan, aurreko urteko akta onartzearekin batera iazko urtearen balantzea egin zuten, baita aurtengorako dituzten asmoen berri eman ere.

Horien artean daude: batetik, 10-12 urte artekoendako uztailerako udalekuak antolatuko dituztela Askizun, Txatxilipurdirekin eta Loramendirekin elkarlanean; bestetik, bi sentsibilizazio kanpaina egingo dituztela. Lehena udako oporretan egingo dute, irakurzaletasuna bultzatzeko. Horrez gain, Auzoko izeneko egitasmoa ere abiaraziko dute. Topaguneak diseinatu du eta esperientzia pilotu gisa jarriko dute martxan Bergaran. Euskaraz ezer ez dakitenei zuzenduta dago.

**ERRONKA, AUTOFINANTZAZIOA**

Dirulaguntzek behera egin dutela-eta, autofinantzazioa igo eta gastuak ahalik eta gehien murriztea da elkartearen aurtengo erronka. Hala ere, aurreko urteetan ondo baloratu diren ekintzekin aurrera egingo dute, eta aipatutako egitasmo berrien aldeko apustua ere egin dute.

**APIRILEAN OSPAKIZUNA**

1990. urtean sortu zen Jardun; hortaz, aurten, 20 urte beteko ditu. Hori horrela, apirilaren 24an urtemuga ospatzeko egitaraua prestatu dute. Munibe plazan egingo dituzte ekintza gehienak, goizean hasita: elkarteko taldeek –trikitilariek, bertsolariek, dantzariek...– emanaldia egingo dute eta eguerdian bazkaria egongo da Artatse elkartean. Iluntzean kantu-poteoa egongo da eta gauean, kontzertua –taldea zehazteke dago–.

**ZUZENDARITZA BERRIA**

Zuzendaritza taldeko hiru kide berri ere izendatu zituzten batzarrean, baita lehendakari berria ere. Hori horrela, Itsaso Mendizabalek Oier Bolibar ordezkatuko du zeregin horretan. Zuzendaritzan sartu diren kide berriak dira: Peio Andrinua, Belen Arrondo eta Izaskun Agirregabiria.

**HIRIGINTZA** > KALTEAK

# Igerilekuko teilatuko xaflek hegan egin zuten

Otsailaren 28ko haizeteak teilatuko hainbat xafla jaso eta lekutik atera zituen; lehenbailehen konpondu nahi dituzte kalteok



Teilatuko xafletako batzuk lekutik aterata daude. MONIKA BELASTEGI

**M.B.** > BERGARA

Agorrosin Ekintza Guneko teilatuko xaflak ahalik eta azkarren konpontzeko ahaleginean dihardu Udalak.

Otsailaren 28an egindako haize bortitzak teilatuko aluminiozko hainbat xafla jaso eta lekutik atera zituen: "Teilatuko hiru gune zabalik daude", esan dute Agorrosingo arduradunek, "eta azpiko egurra agerian", gehitu dute. Horren harira, ahalik eta azkarren estaltzea "premiazkoa" dela ere gehitu dute: "Egurra umeldu eta kaltetu egin daiteke euriarekin, eta baita ura igerilekua dagoen lekura iragazi ere". Kaltetutako xafla gehienak euren lekutik jasota daude baina bat berdegunera erori zen eta hori ere erretiratzeko dago.

Hirigintza Departamentua txostena egitekoa da eta horren ondoren perituak ere ikuskatu beharko du Agorrosingo teilatua. Horren ondoren jakingo da kalteak zenbatekoak diren, eta hasiko dituzte konponketa lanak.

**HITZALDIA**

## Bihar da antzokiari buruzko batzarra

19:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan; herritarrak gonbidatuta daude

**M.B.** > BERGARA

Udalak nahi du erabilera askotariko antzokiaren funtzioak eta formak definitzea herriko kultura eragileen eta herritarren adostasunarekin. Hori horrela, prozesu parte-hartzailea abiarazi du Foru Aldundiak babestutako Kudeatuz programaz baliatuz.

Prozesuaren gaineko lehen batzarra martxoaren 2an izan zen. 65 bat herritar eta kultura taldeetako ordezkari batu ziren eta herrian dauden ahuleziak eta indarguneak identifikatu zituzten, baita herriak behar duen antzokiaren funtzioak aipatu ere.

Bada, prozesu parte-hartzailea aurrera doa eta bihar, martitzena, izango da bigarren batzarra, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

Batzar horretara udal arkitektoa, Xabier Yeregi, joango da eta etorkizuneko antzoki hori eraikitzeko dauden muga arkitektonikoak azalduko ditu. Informazio gehiagorako jo helbide honetara: *http://83.246.72.154/bergara/*.

> HIRIGINTZA

**Boluko laugarren igogailua ere martxan da dagoeneko**

Boluko auzotarren irisgarritasuna bermatzeko eraiki dituzten lau igogailuetako azkena, Koldo Eleizalde eta Iraburu kalea lotzen dituena, martxan dago jada. Beste hirurak abenduan hasi ziren funtzionatzen. Lehen E Planaren barruan egindako obrak dira igogailuok.

## oharrak

IZENEMATEA

**> Begiraleendako izenematea zabaldu dute udalekuetarako**

Uztaileko udaleku irekietarako apuntatu nahi duten begiraleendako izenematea martxoaren 31n bukatuko da. Ezinbestekoa da 18 urtetik gora izatea eta euskaraz jakitea; begirale titulua edukitzea ere baloratuko da. Izena emateko jo Agorrosingo ludotekara 17:00etatik 19:00etara edo deitu 696 91 38 08 telefono zenbakira.

IZENEMATEA

**> Mendi ibilaldia antolatu du San Joxepe elkarteak**

Martxoaren 30ean egingo dute mendi ibilaldia eta ibilbidea ondorengoa izango da: Kanpanzar-Besaide-Udala. Goizeko bederatzi t'erdietan Ibargaraiko autobus geltokian elkartu eta bertatik abiatuko dira. Interesa dutenek egoitzako idazkaritzan eman behar dute izena; hilaren 26a, egubakoitza, da azken eguna.

INGURUMENA

**> Baserriko plastikoa batzeko hurrengo eguna hilaren 23a da**

Ohiko lekuetan batuko dute erabilitako plastiko beltza: Ugarrixan, granja parean; Murinondon, trenbide ondoan; eta San Juanen, eliza aurreko plazatxoan. Batze lekua aldatu nahi izanez gero, 943 76 25 47 telefono zenbakira deitu behar da. Gogoratu behar da plastikoa arratsaldez atera behar dela.

HITZALDIA

**> Euskal Herriko historiari buruzko hitzaldi sortako azkena**

Udalak Euskal Herriko historiaren gainean antolatutako hitzaldi sortaren barruan, *Soberaniaren aztarnak* delako hitzaldia egingo du Floren Aoiz idazleak. Martxoaren 24an, eguaztena, izango da, 19:00etan, udaletxean. Aoizen saioarekin itxiko dute gaiari buruz antolatutako hitzaldi sorta.

UDALA

**> Ibilgailuen zerga ordaintzeko epealdia zabalik dago**

Urtero bezala, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2010eko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea martxoaren 1ean hasi zen eta maiatzaren 31n bukatuko da. Hori horrela, egun horretatik aurrera, zerga errekarguarekin eskatuko dutela jakinarazi dute Udaletik.

JENDARTEA > FORU ALDUNDIA

# Errepide sarea hobetzeko ahalegina eskatu zioten herritarrek Olanori

Ahaldun nagusia eta Eneko Goia Oñatin egon ziren eguaztenean

Aldundiaren helburuak azaldu eta herritarren galderak erantzun zituzten kultura etxean

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

*Gipuzkoako Foru Aldundia zure herrian* delako egitasmoaren barruan, Markel Olano ahaldun nagusia eta Azpiegituretako diputatu Eneko Goia Oñatin egon ziren eguaztenean, herritarren galderei erantzuten.

Ekitaldian egondako herritarrek egindako galdera gehienak errepide sarearen gainekoak izan ziren. Alde batetik, Oñati Ezkerretik koalizioko zinegotzi Joxe Ruizek Oñati-Bilbo eta Oñati-Donostia loturak "eskasak" direla esan zuen, eta irtenbide "duina" eskatu zuen. Beste alde batetik, AP-1 errepideko erabiltzaile batek Bergarako edo Arrasateko sarreretara heltzeko dauden auto pilaketak murrizteko irtenbidea eskatu zuen.

Bi galderei antzerako erantzuna eman zien Eneko Goiak: Oñatik duen kokapen geografikoa dela-eta, irtenbide egokiak topatzea "ez dela erraza" esan zien. "Udal arduradunekin elkarlanean, arazoak antzematen gabiltza, eurak dira-eta herritarren bozeramaile. Arazoak antzeman ondoren, irtenbide egokiena ematen ahaleginduko gara; baina ez da erraza izango" gehitu zuen. AP-1 errepidearen eta Oñatiren arteko loturari buruz esan zuen, Zubillagako saihesbidearekin egoera zertxobait hobetu den arren, bigarren fase batean "irisgarritasuna hobetzen" ahaleginduko direla.



Markel Olano eta Eneko Goia, Gipuzkoako biribilguneari buruzko azalpenak ematen. MIREIA BIKUÑA

**ZABORREN KUDEAKETA**

Herritarrek ez zuten aukerarik galdu autobus azkarraren gainean galdetzeko. Proiektua idatzi aurretik ikerketa egiten dihardutela esan zuen Eneko Goiak, eta Markel Olanok gaineratu zuen ekainerako-edo garatutako proiektua erakusteko moduan egongo direla.

Oñati Ezkerretik koalizioko zinegotziak zabor kudeaketaren gainean galdetu zion ahaldun nagusiari. Hainbat sindikatuk, alderdi politikok eta eragilek sinatutako Usurbilgo Ituna zergatik ez duen ontzat ematen galdetu zion. Olanoren erantzuna zuzena izan zen: "San Markos zabortegia itxi genuen eta birziklapenaren aldeko apustua egin dugu. 2013. urterako eraikita egotea aurreikusten dugun errausketa plantaren aldekoak gara".

ESANAK

**"Oñatik duen kokapen geografikoagatik, ez da erraza izango errepide sareari irtenbide egokia ematea"**

**Eneko Goia** > Azpiegituretako dip.

**"Arantzazutik Gomistegira doan elbarriendako bideari sarrera egingo diogu aparkalekutik bigarren fase batean"**

**Markel Olano** > Ahaldun nagusia

**SARRERA APARKALEKUTIK**

Arantzazutik Gomistegira doan elbarriendako bidearen gainean ere galdetu zioten oñatiarrek Markel Olanori. Pasealeku horrek aparkalekutik sarrera zuzenik ez duela azaldu zioten ahaldun nagusiari. Arazoa "gogoan" dutela erantzun zuen, eta bigarren fasean egingo dutela: "Krisiarengatik lan batzuk atzeratu behar izan ditugu. Dena den, aparkalekuko sarrera hori bigarren fase batean egingo dugu; ez gaude geldi. Orain, Foru Aldundiko Nekazaritza Saila Arantzazuko interpretazio zentroarekin dabil buru-belarri".

## Emaitza onak karate txapelketan

Aloña Mendi karate saileko ordezkariek emaitza onak lortu zituzten Donostiako Altzako kiroldegian jokatutako alebin eta infantil mailetako Gipuzkoako txapelketan.

Aloñako lau ordezkariek kata modalitatean parte hartu zuten, eta Kevin Martin (lehena ezkerretik) eta Aitor Artzuaga (lehena eskuinetik) hirugarren tokian sailkatu ziren alebin mailan.

Karatekak eta euren entrenatzaile Alberto Lera pozik itzuli ziren egindako lanarekin.


ALOÑA MENDI

> MUSIKA

### Bihar eta etzi musika eskolakoen udaberriko saioak

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek udaberriko kontzertu bikoitza egingo dute gaur eta bihar Santa Ana antzokian, 18:30ean. Guztira, 250 bat ikaslek parte hartuko dute bi emanaldietan.

Gaurko kontzertuan parte hartuko dute lehenengo moduluko ikasleek; abesbatzetakoek; piano, akordeoi eta triki-pandero taldekoek; eta haizezko taldeko kideek. Aldiz, bihar, musika tailerretakoak; gitarra eta txistu taldekoak; akordeoi orkestrakoak; eta perkusio taldekoak igoko dira oholtzara, besteak beste. Gainera, biharko emanaldiaren bukaeran, 2008-2009 ikasturtean bigarren maila bukatu zuten ikasleei diplomak emango dizkiete.

**oharrak**

DEIALDIA

**> Oñatin bizi diren aretxabaletarrek bazkaria egingo dute**

Etxe Aundi jatetxean bilduko dira apirilaren 17an. Bazkarira joan gura duten aretxabaletarrek Oñati, Aloña edo Arrano tabernan eman behar dute izena martxoaren 29a baino lehen; edo bestela, 648 19 10 37 (Miren) telefono zenbakira deitu dezakete.

IKASTAROA

**> Erretiratuendako bitxigintza ikastaroa egingo dute**

Martxoaren 30ean hasi eta ekainaren 1a arte, bitxigintza ikastaroa egingo dute erretiratuendako. Martitzenero bi orduko eskolak emango dituzte, 16:30etik 18:30era. Interesatuek Pake Lekun eman dezakete izena, astelehenetan, eguaztenetan edo egubakoitzetan (11:00-13:00).

**ARETXABALETA** > INGURUMENA

# Ekitate gabezia lantzen dabiltza ikasleak

Zaharren egoitzara eta Gizarte Zerbitzuetara joango dira; nagusienek inkestak egingo dizkiete herritarrei, konpromiso maila neurtzeko

**MIRARI ALTUBE** >ARETXABALETA
Kurtzebarri eskolako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak ekitaterik ezaren gaineko hausnarketa eta azterketa egiten dabiltza ikasturte honetan, Eskola Agenda 21en barruan.

Martxoan ekintza planari eman diote hasiera, eta herri mailako partaidetza lantzen dabiltza. Ekintza horietan lortutako emaitzekin bi lan ildo jarraituko dituzte: bete beharreko konpromisoak hartu eta ikusitako gabeziak konpontzeko proposamenak egin Udalari. Proposamen horiek azaldu eta, era berean, konpromisoak eskatzeko batzarra egingo dute alkatearekin ekain inguruan.

**MIGRAZIOA AZTERTU**
Zuzentasuna da ekitatea, berdintasuna. Hori aztertzeko Lehen Hezkuntzako ikasle txikienek nahiaren eta beharraren arteko ezberdintasunak ikusiko dituzte. 8 eta 10 urte artekoek migrazioa izango dute aztergai –lehengoa eta oraingoa– eta zaharren egoitzara joango dira bizipenak trukatzera.

10 eta 12 urte arteko neska-mutikoek bidezko merkataritza aztertuko dute, aretxabaletarrek produktu horiek erosteko dituzten aukerak eta ohiturak behatuta.

**INKESTAK KALEAN**
DBHko ikasleek, ostera, laguntzei egingo diete jarraipena eta horretarako Udaleko Gizarte Zerbitzuetara joko dute. Eta nagusienek, 14-16 urtekoek, hainbat gairen gaineko inkestak egingo dizkiete herritarrei: bazterketa, immigrazioa…

**EMAKUMEA** > DEIA

## Emakumeen taldea sortzeko asmoarekin batzarra egingo dute eguaztenean (19:00)

Dena dagoela egiteko diote batzarrerako deia egin dutenek eta eguaztenean hasi gura dute ibilbide hori herriko emakumeekin

**M.A.** > ARETXABALETA
Emakumeen taldea sortu eta Aretxabaletan mugimendu feminista sustatzeko asmoarekin batzarra deitu dute herriko hainbat emakumek. Eguaztenean, hilak 24, izango da (19:00), Arkupe kultura etxeko batzar gelan (2. solairua). Ateak zabalik izango dituzte interesa duen edozein emakumerendako.

**DENA EGITEKO**
Emakumeen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak antolatzeko elkartu ziren hainbat emakumek egin dute orain batzarrerako deia: "Dena dago egiteko, baita izena asmatzea ere. Eta egiteko dagoen hori guztia herriko emakumeekin egin gura dugu". Orduan, martxoaren 8an, elkarretaratzea egin zuten lehenengoz Aretxabaletan Berdintasun Sailarekin elkarlanean. Eta horri jarraipena eman gura diote orain. Hala, eguaztenean elkartzen direnen artean ideiak jaso gura dituzte, iritziak trukatu eta aurrera begira jarraitzeko lan ildoak zehazten hasi. Emakume asko elkartuz gero bi talde sortzeko ere gertu daude deialdia egin dutenak.


M.A.

## Haritzak eta lorategi berria

Mitarte kale berrituko azken lanak egiten dabiltza egunotan: argindar eta telefono kableak behar bezala jarri etxeen aurrealdetan eta lorategiak txukundu. Hala, 12 haritz landatu dituzte lehen platanondoak egondako lekuetan –izugarrizko haritzak guztiak– eta lorategi txiki bat egin dute Eroski alboan. Udaberriari ongietorria emateko kolore askotako loreak landatu dituzte eta lorazainek gogorarazi dute kartel baten bitartez mesedez errespetatzeko landareak, "apurtu eta zapaldu barik".

**ESKORIATZA** > LANAK

## Aranburuzabalako hegaleko lanak gaur hasiko dituzte

Eguaztenean bilera egingo dute auzotarrek eta udal ordezkariek lanen berri emateko

**M.A.** > ESKORIATZA
Aranburuzabala kaleko 24-30 etxebizitza blokeko atzealdean dagoen hegala trinkotzeko eta egonkortzeko lanak gaur, hilak 22, hasiko dituzte.

**EZPONDA BABESTU**
Lan horien ardura Zut enpresa bizkaitarrari eman zion Udalak joan den astean. 203.734 euroko aurrekontua dute eta maiatzerako bukatuta izango direla uste dute arduradunek.

Egin beharreko lanen proiektua otsailaren 24an onartu zuten. Haren arabera, egin beharreko lanik garrantzitsuenak bi dira: lur-jausia izandako ezponda bihurdura hirukoitzeko sarearekin babestu eta haitz-ezpondari eusteko hormigoi armatuzko horma egin.

Joan den martitzenean, hilak 16, obra zuzendariarekin eta proiektua egin duen enpresako ordezkariekin elkartu zen Pedro Lasagabaster alkatea, eta lanak gaur hastea adostu zuten. Era berean, kaltetutako etxeen egungo egoera egiaztatzeko aktak jasotzea erabaki zuten.

**BATZARRA EGUAZTENEAN**
Udal ordezkariek gura dute Aranburuzabala kalean kaltetuta gertatutako bizilagunak informatuta egotea. Horregatik, batzarra egingo dute eguaztenean, hilak 24, proiektuaren eta egingo dituzten lanen xehetasunak jakin ditzaten.


Lur-jausia gertatu zen Aranburuzabala kaleko hegala. MIRIAN BITERI

> UDALA

### Udal albisteak sare sozialen bitartez ere jaso daitezke, 'Twitter' eta 'Facebook' sareen bitartez, hain zuzen

Hemendik aurrera sare sozialak erabiliko ditu Udalak albisteen berri emateko. *Twitter*–*Twitter.com/eskoriatzaudala*– bidez albisteak jaso ahal izango dituzte herritarrek eta *Facebook*-en bi profil sortu dituzte: euskara eta kultura. Bi gai horietako informazioa jasotzeko nahikoa da *Facebook*-ekin bat egitea. Sare sozialak gero eta gehiago erabiltzen direla jakinda eman du pausoa Udalak eta dagoeneko hasi da, teknologia horien bitartez, albiste eta hitzorduen berri ematen.

## oharrak

IKUSKIZUNA
**> Ipuin kontaketa eguenean**
Vanessa Gonzalez ipuin kontalari arrasatearrak ipuin kontaketa eskainiko die umeei eguenean, hilak 25, Udal Bibliotekan (18:00). Giza balioak lantzeko ipuinak izango dira.

ANTZERKIA
**> 'El príncipe de mentiras' antzezlana egubakoitzean**
Edurne Agirrezabala aktoreak senar-emazteen arteko harremanaren gaineko bakarrizketa eskainiko du hilaren 26an, unibertsitateko aretoan (22:30). Sarrera, debalde.

UDALEKUAK
**> Aldundiak antolatutako udalekuetarako izenematea zabalik**
7-13 urte arteko gazteendako udalekuak antolatu ditu Foru Aldundiak. Izenemate epea zabalik dago Gazteria Zerbitzuan. Internet bidez ere egin daiteke: *www.gipuzkoa.net/oporraldi.*



Osoko bilkuren aretoko hormak eta sabaia konpondu egin dituzte, baita aretoa margotu ere. L.Z.

**ELGETA** > UDALA

# Osoko bilkuren aretoa, berrituta eta margotuta

Bideberri mankomunitatearen Auzolan programaren bitartez Elgetako hiru lagun kontratatu dituzte sei hilabetean hainbat lan egiteko

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Azken hiru asteotan ezohiko itxura hartu du udaletxeko osoko bilkuren aretoak. Hiru lagun gogor aritu dira lanean areto nagusiari itxura berria emateko. Elgetarrak hirurak, Bideberri mankomunitatearen Auzolan programaren barruan aritu dira lanean.

Ikastaroa egin zuten lehenengo; pintura eta lorezaintza ikastaroa, hain zuzen ere. Orain, praktikak egiten ari dira. Hiru asteotan udaletxeko areto nagusia konpondu eta margotu dute. Datozen egunotan Salbador kale osteko aparkalekuak eta garajeetarako sarrerak margotzen ikusiko ditugu, eta aurrerantzean herrian lorezaintza lanak ere egingo dituzte. Langabezian zeuden, eta Auzolan programaren bitartez sei hilabeteko lan kontratua egin diete.

Uste baino denbora luzeagoa behar izan dute areto nagusia txukuntzeko. "Aretoa margotzea zen hasiera baten gure egitekoa, baina pintura kapa bat eman eta hurrengo egunean guztia altxatua zegoen, horma zatika jausten zelako. Azkenean, igeltserotza lanak ere egin behar izan ditugu", esan digu langileetako batek. "Hori bai, aretoa oso dotore gelditu da, ederra aldea!".

**OGIA EGITEKO TAILERRA**

Udalak, bestalde, ogia egiten ikasteko tailerra antolatu du. Apirilaren 24an, zapatua, egingo dute Ozkarbi elkartean. Zortzi orduko tailerra izango da; 10:00etatik 18:00etara, eta doakoa. Irakasleak izango dira *irinaketaurunak.wordpress.com* blogeko Teba eta Juantxo. Prozesu osoa irakatsiko dute, hasiberriendako oso aproposa izango dela adierazi dute eta tailerra guztiz praktikoa izango dela ere aurreratu dute. Izenematea dagoeneko zabalik dago udaletxean; azken eguna apirilaren 15a izango da. Gehienez, zortzi lagunendako tokia dago.

**ANTZUOLA** > JENDARTEA

# Armarriko kanoiak berbagai izango dituzte eguenean Goiena Telebistako magazinean

'Goiena magazinea' saioan egingo dute mahai-ingurua; saioa Goiatz Aranak gidatuko du eta 19:45ean hasiko da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

*Antzuolako armarriaren kanoiak* izenarekin mahai-ingurua egingo dute eguenean GOITBn. Bertan parte hartuko dute Joseba Asiron, Txente Rekondo eta Angel Rekalde adituek. Mahai-ingurua *Goiena magazinea* saioan izango da; 19:45ean hasiko da eta Goiatz Arana kazetariak gidatuko du. Zuzenean deitu eta galderak egiteko aukera egongo da.

**KANOIAK EZTABAIDAGAI**

Antzuolako Udalak antolatutako mahai-ingurua da. Helburua da armarritik 12 kanoiak kentzeko egiten dabiltzan prozesuko lehenengo pausoa amaitzea. Izan ere, orain arte armarriaren gaineko hitzaldiak egin dituzte.

Lehenengo hitzaldian 30 lagun inguru batu ziren eta 40 bat lagun bigarrenean. Mahai-inguruaren ondoren aztertuko dute zeintzuk izango diren eman behar dituzten hurrengo pausoak.

**BIHAR, AZKEN HITZALDIA**

*El escudo de Gipuzkoa: crónica de un escudo vivo* hitzaldia egingo du bihar, 18:30ean, Rosa Aierbek Torresoroan. Biharkoa izango da azken hitzaldia.

**ARAMAIO** > 50 EGUN ERREPIDEA ITXI ZUTELA

# Alkateak deitutako batzarrean 50 bat herritar batu ziren

Diputazio eta Adifeko ordezkariekin izandako bileren berri eman zuen Asier Agirre alkateak; herritarrak kezkatuta azaldu ziren arazoarekin

**E.M.** > ARAMAIO

Ordu t'erdi inguru iraun zuen alkateak herritarrekin eguaztenean izandako bilerak. Abendutik hona Adif eta Diputazioko ordezkariekin izandako bileren berri eman zuen alkateak. Era berean, Suña-Boluetako errotaren gainean saihesbide moduko bat (850 metroko luzerakoa) egitea aurreikusten duen Diputazioaren proiektua azaldu zien bertaratuei. 50 lagun inguru azaldu ziren batzarrera eta gehienek mesfidantza azaldu zuten Diputazioak agindutako epeen aurrean. Lanak abendurako amaituta izatea aurreikusten du Diputazioak. Alkateak esan zuenez, Diputazioko ordezkariei eskatu die behin betiko proiektua onartzen dutenean (Arabako eta Gipuzkoako ur departamentuen oniritzia falta ei da bakarrik), Aramaiora etortzeko herritarrei azaltzera. Herritarrek euren kezka azaldu zuten errepidearen itxierak eragindako kalteengatik eta Diputazioari eta Adifi leporatu zioten gertatutakoa. Hainbat lagun erakundeak gehiago presionatzearen alde azaldu ziren.



Eguaztenean alkateak herritarrekin izandako bileraren irudi bat. E.M.

**LEINTZ GATZAGA** > LANAK

# Plaza alboko hormari baranda jarriko diote laster

E Planaren bigarren laguntzarekin egingo dute; baita biltegiari teilatua konpondu ere

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Espainiako Gobernuak iragarritako bigarren E Planaren dirulaguntzarekin bi proiektu egingo ditu Udalak: San Migel plazako hormak duen arriskuari behin betiko irtenbidea topatu eta biltegi lanak egiten dituen udal eraikinari teilatua konpondu.

**LANAK LEHENBAILEHEN HASTEKO**

Estatu Fondotik Leintz Gatzagara 28.432 euro bideratuko zituztela iragarri zuten iazko urrian. Oso diru gutxi izanik, lan txikiak egitea erabaki du Udalak; izan ere, lan handiagoak, Santa Kolunbako bigarren faseko lanak, esaterako, ezingo lituzke bukatu.

Hala, bada, herritarren eskaera kontuan hartu eta plazako hormari baranda edo antzeko zerbait jartzea erabaki du. Orain ez dauka ezer eta bertatik jausteko arriskua dago.

Bestetik, gatz museoaren alboan dagoen eraikin bati teilatua konponduko diote. Udalaren biltegia da orain, baina aurrera begira beste zerbaitetarako erabil daitekeela pentsatuta erabaki dute konponketa egitea.

Proiektu biak onartu dituzte Madrilen eta laster esleituko dituzte lanak, lehenbailehen hasteko.

**UDAL AURREKONTUA**

Udala, berriz, 2010eko aurrekontua gertatzen dabil. Egoera ekonomikoa, baina, ez da batere ona eta kontuak zelan lotu asmatu ezinik dabil. Alkateak iragarri du partida gehienek %10eko jaitsiera izango dutela eta berririk ezingo dutela sartu.



**> FUTBOLA**
Aloña Mendik 4-1 irabazi dio Lesakako Beti Gazteri Azkoagainen > 18



**> ESKUBALOIA**
Mailaz igotzeko aukera guztiek ihes egin dute Egiaren aurka galduta > 19



**> TRIALSINA**
Gipuzkoako txapelketako azkeneko proba jokatu da Aretxabaletan > 22

**TXIRRINDULARITZA** > BERGARA

# Esprint estuan Caja Ruraleko Herrada nagusitu zen Gorlan

**DENBORA**
Irabazleak 2:23:52ko denbora egin zuen Gorla gainean

**GARAIKURRAK**
Naturgas, talde onena; eta Bizkarra, mendiko sariaren irabazlea

**DEBAGOIENDARRAK**
Caballero eta Arantzetak lasterketa amaitu zuten; Penabadek, ez



**SARIDUNAK** Naturgas, talde onena; Jesus Herrada, irabazlea; Mikel Bizkarra, mendiko saria; eta Iban Caballero, bergarar onena. MAIDER ARREGI



**IRTEERA** 78 txirrindulariak San Martin plazatik irteten. M.A.



**TXAPELDUNA** Herrada, garaikurrarekin eta 23 urtez azpikoen maillotarekin. M.A.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Jesus Herrada eta Pello Bilbaok esprint estua izan zuten Gorla gainean; hasiera baten zorion guztiak Naturgas taldeko Bilbaorendako izan ziren arren, garaipena Herradak eraman zuen. Izan ere, oso estua izan zen esprinta, eta txirrindulariek eurek ere ez zekiten nor izan zen irabazlea.

**HASIERAKO NAHASKETA**

Naturgas taldeko Bilbaok, garaipena berea zela pentsatuta, "justu" irabazi duela esan zigun: "Irabaztekotan, gurpil-azala besterik ez diot atera", zioen. Caja Ruraleko autora joan ginenean, ostera, baieztatu ziguten euren taldeko Jesus Herrada izan zela txapelduna Gorla gainean.

**GORLAN GORA, BAKARRIK**

78 txirrindulari izan ziren irteera puntuan egubakoitzean Bergaran. Zubillagatik itzulia egin ostean, Gorla igo zuten lehenengo aldiz. 30 laguneko taldea iritsi zen gainera; lasterketa kontrolpean izan zuela esan zigun Herrada irabazleak.

Gorlatik Aizpurutxora eta Zumarragara egin zuten txirrindulariek; ondoren, Deskarga jaitsi eta bigarren aldiz egin zieten aurre Gorlako maldei. Bolun gora Jesus Herradak eta Mikel Bizkarrak –Naturgas– egin zuten aurrena. Helmugarako zazpi kilometro falta zirela, Bizkarrak ihes egin eta bakarrik egin zuen ia igoera guztia. Atzetik, baina, gertu zituen Bilbao eta Herrada; hala, Bizkarra harrapatu zuten eta sprintean erabaki zen garaipena.

**DEBAGOIENDARRAK**

Ibarrekoei dagokienez, Iban Caballero 55. tokian sailkatu eta Bergarar onenaren saria eroan zuen; Xabier Arantzeta 61. tokian sartu zen; eta Asier Penabadek lasterketa utzi zuen.

## Frantziako Bauoron lehena Uzarragan

35. Uzarragako igoeran Frantziako Lamarque taldeko Karl Bauoron izan zen azkarrena. 81 kilometroak egiten 2:04:26ko denbora behar izan zuen txapeldunak; atzetik sartu ziren Andoaingo Mikel Iturria eta Caja Rural taldeko Ioritz Urdangarin.

78 txirrindulari irten ziren; baina helmugara 63 heldu ziren. Utzi zutenen artean Aitor Laskurain antzuolarra zegoen.



Bauoron helmugara sartzen. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Atzoko partidua irabazita Aloña Mendik maila mantentzeko adina puntu batu ditu

Etxekoak hasieratik aurreratu ziren markagailuan; atsedenean 2-0 ziren

Bigarren zatia gogorragoa izan zen, baina gol aukerak baliatu zituzten

**ALOÑA MENDI**

**4-1**

**BETI GAZTE**

**Aloña Mendi** > Aginagalde, Barrena (Eldin 87. min.), Igartua, Idigoras, Garmendia (Carpintero 82. min.), Palacios, Zubia (Aramendi 92. min.), Agirre (Arregi 81. min.), Ibabe, Astigarraga eta Olalde (Ruiz 85. min.).

**Beti Gazte** > Telletxea, Otxoteko, Villadangos (Larralde 60. min.), Irazoki, Iantzi, Irigoien (Arriola 60. min.), Alberro (Maritxalar 82. min.), Maia, Mitxelena eta Saralegi.

**Epailea** > Guariz. Sei txartel hori atera ditu, hiru etxeko taldeari, beste hiru lesakarrei.



Mikel Palacios eta Aritz Garmendia jokalari oñatiarrek gol bana egin zuten atzoko norgehiagokan. JOSETXO ARANTZABAL

**LARRAITZ ZEBERIO** > OÑATI

Lau gol egin zizkion atzoko norgehiagokan Aloñak Lesakako taldeari; Roberto Idigorasek (7. min.), Mikel Palaciosek (37. min.), Aritz Garmendiak (81. min.), eta Jon Igartuak (87. min.). Taulako azken taldea izanik atzokoa mendean hartzeko moduko arerioa zela argi zegoen, baina pronostikoak hori besterik ez dira, garaipenak zelaian lortu behar direlako. Lehenbailehen ekin zioten lanari oñatiarrek, eta laster aurreratu ziren markagailuan Idigorasen gol goiztiarrarekin. Lasaitasun apur bat gehiago eman zien Diazen mutilei Palaciosen tantoak. Atsedenaren ostean, helburua zen hirugarrena lehenbailehen egitea, arriskua guztiz aldentzeko.

**BIGARREN ZATIAN, ZAILTASUNAK**

"Nahiz eta bi gol eginda eduki, garrantzitsua zen hirugarrena egitea", esan zuen partidu amaieran Pablo Diaz entrenatzaileak. "Lesakako taldearendako azken aukera zen mailari eusteko borrokan berriz sartzeko, eta 2-1ekoa eginez gero atzera ere partiduan sartuko ziren. Hori arriskutsuegia zen guretako".

"Bigarren zatian oso gaizki jokatu dugu", adierazi du Roberto Idigoras jokalariak. "Ez dugu jakin eurak egindako aldaketa batzuei buelta ematen, eta apur bat sufritu dugu. Ez gol aukerak sortu dituztelako, baina bai gure gainean egon direlako". Zailtasunak zailtasun beste bi gol egin zituzten etxekoek amaitu aurretik. Emaitza polita azkenean.

**Pablo Diaz** > Entrenatzailea

## "Gure helburua orain ahalik eta goren amaitzea izango da"

**L.Z.** > OÑATI

**Pozik agertu da Pablo Diaz entrenatzailea mutilek Beti Gazte taldearen aurkako partiduan egindako lanarekin.**

**Ondo joan dira gauzak, ezta?**

Bai. Partidu gogorra izan da, baina lehenengo zatian aurretik ipini gara, eta eutsi egin diogu. Nire beldurra zen mutilak larregi lasaitzea eta arerioak horri etekina ateratzea. Lesakarrek aurrera ateratzeko zuten azkenetariko aukera zen honakoa eta horrek arriskutsu bihurtzen zituen.

**Nola ikusten duzu denboraldiaren amaiera?**

Maila ziurtatuta daukagu, eta hori zen gure lehentasuna. Orain ahalik eta postu onenean amaitzen saiatuko gara. Puntu oso gutxira gaude talde asko. Nik uste 4. eta 8. postuen artean ibiliko garela. Saiatuko naiz, bestalde, gelditzen diren zortzi partiduetan azkenaldian gutxien jokatu duten mutilei minutuak ematen. Hori izango da gure egitekoa.



L.Z.

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

# Bigarren zatian, 6 minutuan hiru gol egin zizkion Beasainek Aretxabaletari

Igor Gordobilen taldea jaitsierako postuetan da uneotan, aurreko taldetik puntu bakarrera

**BEASAIN**

**3-1**

**ARETXABALETA**

**GOIENKARIA** > ARETXABALETA

Gogorra izan zen Beasainen aurkako partidua aretxabaletarrendako. Partidua bera baino, emaitza izan zen gogorra. Zigor gogorra izan zela ere esan du taldeko presidente Eduardo Altubek.

**LEHENENGO ZATIA KONTROLPEAN**

Lehenengo zatian joko ona egin zuten Aretxabaletako jokalariek. Egoera kontrolpean izan zuten eta gol aukerak ere sortu zituzten; bi, zehatz esanda. "Imanolek eta Oinatzek gola egiteko aukera bana izan zuten", gogoratzen du Altubek. "Ezin izan zituzten gauzatu eta atsedenean markagailua estreinatu barik joan ginen aldagelara talde biak".

Atsedenean aretxabaletarren sentsazioak ez ziren txarrak, nahiz eta Beasain mailako talde sendoenetako bat izan. "Nik uste 1-0 emaitza merezi genuela lehenengo zati amaieran", esan du Altubek.

**BIGARREN ZATIAN, HONDAMENDIA**

Ondo hasi zuten bigarren zatia UDAkoek, baina 22. minutuan etxeko taldearen lehenengo gola iritsi zen. Falta bat, Beasainen jaurtiketa eta gola. Gainbeherearen hasiera izan zen. 26. minutuan bigarrena egin zuten Beasaingoek, eta 27. minutuan hirugarrena. "Sei minutuan hiru gol egin zizkiguten!", gogoratzen du Altubek. Aretxabaletakoek partiduko azken minutuetan egin zuten gola; Oinatz Agirrek egin zuen, hain zuzen ere.

Jaitsiera postuetan dago orain UDA Eibarrek aste bukaeran 0-3 irabazi ondoren. "Talde asko gaude 2-3 puntura, eta 7 partidu gelditzen dira", dio Altubek. "Domekan Durangoren aurkako partidua garrantzitsua izango da, zalantzarik gabe".

> OHOREZKO ERREGIONALA

## Bost gol egin zizkion atzo Mondrak Idiazabali haien etxean

Arratsalde borobila izan zen atzokoa Andoni Azkargortarentzat. Mondrak bost gol egin zituen etxetik kanpo; eta, gainera, gehiago egiteko aukerak izan zituen. Orokorrean, talde guztiaren lana izan zen aipatzekoa. Lerro guztietan ibili ziren fin mondragoetarrak; zulorik utzi gabe eta baloia ondo mugitzen.

Atzokoan golegileak izan ziren Jon Murua, Julen Heriz –2– eta Maikel Hernandez –2–. Idiazabalen gola etorri zen bigarren zatiko 38. minutuan (1-3koa izan zen). Ondoren, bi minututan egin zituen Mondrak beste bi golak.

Azkargorta pozik zegoen taldeak egindako lanarekin. Orain, sailkapeneko 11. postuan daude, 32 punturekin.

> OHOREZKO ERREGIONALA

## Etxean irabazi eta Donostian galdu egin du Bergarak

Aste bukaeran bi norgehiagoka jokatu ditu Bergarak. Barikuan 3-2 irabazi zuen Trintxerpe taldearen aurkako norgehiagoka Agorrosinen. Atzo emaitza bestelakoa izan zen Donostian: 2-1 galdu zuen Berioren aurka.

Bi emaitzokin eta, denboraldiari amaiera emateko zortzi jardunaldi gelditzen direla kontuan hartuta, Manu Diazen taldea mailari eusteko beste puntu batzen saiatuko da.

Datorren astean, esaterako, helburu hori honezkero gauzatu duen Aloña Mendiren bisita jasoko du Agorrosinen. Oñatiarrek dagoeneko esan dute euren helburua orain denboraldia ahalik eta maila altuenean amaitzea dela. Interesgarria izango da, beraz, datorren asteburuko derbia.



Epaileak partidu amaiera adierazi zuenean, atsekabea zen nagusi Fork Mugarriko jokalarien artean. GOIATZ ARANA

**ESKUBALOIA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Igoera hatz puntekin ukitu dute, baina ihes egin die azken norgehiagokan

Egia hasieratik aurreratu zen markagailuan; kontraerasoan min handia egin zieten etxekoei

Arrasatearrek azken minutura arte borrokatu zuten partidua; guztia eman zuten kantxan

FORD MUGARRI
**28-33**
EGIA

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE

"Galtzea ez zaio inori gustatzen eta horrelako partiduak gutxiago". Ford Mugarriko entrenatzaile Edu Orgazen hitzak dira, Egiaren aurkako norgehiagoka amaitu eta gutxira. "Espero nuen aldea estuagoa izatea, baina arazoak izan ditugu lehenengo zatian eta uste dut hor egon dela gakoa".

Entrenatzailearen iritziz kontraerasoan min handia egin die Egiak: "Sei metrotara larregi jaitsi gara eta sakontasun barik jokatu dugu defentsan. Uste dut hor harrapatu gaituztela. Lehenengo zatian distantzia hartu dute markagailuan". Atsedenean, markagailuak 15-19 erakusten zuen.

**PRESIOA ETA URDURITASUNA**

Presioak ere bere pisua izan zuen Arrasateko jokalarien artean. Egia hasieratik aurreratu zen markagailuan eta etxeko taldea atzetik joan zen denbora guztian. Bigarren zatian, aldea bi puntura jaistea lortu zuten, baina lau jokalarirekin gelditu ziren eta Egiak ondo baliatu zuen egoera hori. "Egia da taldea ez dagoela horrelako partiduak jokatzera ohituta", onartzen zuen Orgazek. "Atsedenean lasaitzen saiatu gara eta bigarren zatian gure betiko jokoa berreskuratzeko ahalegina egin dugu, baina Egia talde gogorra da. Urteak dira igoera faseak jokatzen dituztela, eta zerbaitegatik da hori".

Kepa Isasmendi jokalaria bat dator bere entrenatzailearen balorazioarekin: "Bagenekien Egiak kontraerasoan min asko egiten duela. Saiatu gara jaurtiketa denak bukatzen eta euren kontraerasoa apur bat saihesten. Saiatu gara, baina ezinezkoa izan da".

Arrasateko taldearendako amaitu da ametsa. "Orain, hirugarren postua ziurtatu behar dugu", aurreratu du Orgazek. "Gelditzen zaizkigun norgehiagokak ondo jokatu behar ditugu. Indartsu atera behar dugu, denboraldia behar den moduan bukatzeko".

**HONDARRIBIAN, GALDU**

Atzo eguerdian Orgazen mutilek Hondarribian jokatu zuten; han ere, galdu egin zuten: 32-30.

HORRELA IKUSI DUTE NORGEHIAGOKA



**Kepa Isasmendi**
Ford Mugarri-Arrasateko jokalaria

"Dena eman dugu, baina Egia gu baino gehiago izan da. Hemen egotea ez zen urte hasierako helburua. Dena partidu baten jokatu dugu, eta ezin izan dugu igoera lortu. Kontraerasoan min handia egin digute".



**Iñaki Lopez**
Egiako kapitaina

"Bigarren postua berretsi dugu, eta mailaz igoko gara; pozik egoteko modukoa da. Arrasateko taldea indartsu ikusi dut. Gure moduan azkar jokatzen duen taldea da, baina fisikoki hobeto gaudela esango nuke".



**Edu Orgaz**
Ford Mugarri-Arrasateko entrenatzailea

"Partidua amaitu berri den honetan gorputzaldi eskasa daukagu, baina uste dut hemendik egun batzuetara edo txapelketa amaitutakoan denboraldiak emandakoaz jabetuko garela. Lan oso ona egin dugu".



**Kepa Grutzeta**
Ford Mugarriko Arrasateko jokalaria

"Min hartuta nago eta harmailatik jarraitu dut norgehiagoka. Defentsan lan ona egin dute, baina erasoan arazoak izan dituzte. Ezin izan dituzte jaurtiketak ondo egin. Egiak erakutsi du talde ona dela".




Etxekoak jaurtiketa egiten: Moracho taula azpian, eta Anasagasti ondoan.

JOSETXO ARANTZABAL

**1. MAILA** > JAITSIERA LIGA

# Gaztetasunak ematen duen indar fisikoa izan zen garaipenaren gakoa

Atsedenean atzetik zeuden etxekoak; baina, kontraerasoez baliatuta, lehia irabaztea lortu zuten

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**83-80**
PROMOCIONES LEGARCIA

**Mondragon Unibertsitatea** > Aranzabal (12), Anasagasti (2), Moracho (8), Revalo, Anasagasti (21), Rodriguez, Barbero (14), Arejolaleiba (16), Atxa, Gonzalez (4), Bidaburu (4) eta Zabalo (2).

**Promociones Legarcia** > Arana (5), Suto, Morella, Oier, Aramendia, Boneta (31), Lopez, Juanez (7), Aranburu, Cia (18), Curvo (6) eta Curvo (11).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 17-19. Bigarren laurdena: 28-36. Hirugarren laurdena: 57-59. Laugarren laurdena: 83-80.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE

Fisikoki gehiago izan ziren Arrasateko jokalariak, eta garaipenaren gakoa hor egon zen. Bai entrenatzaileak eta bai jokalariek argi zuten euren abantaila hori zela. Lizarrakoak baino jokalari gazteagoak ditu Ointxek; hala, partidu amaierara hobeto iritsi ziren arrasatearrak.

**LEHIA GAIZKI HASI ZUTEN**

Etxekoentzat ez zen batere ondo hasi zapatuko lehia. Batez ere, jaurtiketetan, ez zuten asmatu; ondorioz, Lizarrakoak aurretik jarri ziren: 17-19 amaitu zen lehenengo laurdena. Bigarren laurdena okerragoa izan zen: etxekoek huts asko egin zituzten eta markagailuan zortzi puntu atzetik jarri ziren.

**KONTRAERASOAN**

Bigarren zatian, zertxobait aldatu zen jokoa. Defentsan ondo ibili ziren etxekoak; 3-2ko defentsa egin zuten. Taula azpian lapurtutako baloiak aprobetxatu eta kontraerasoan irten ziren arrasatearrak; hala, aldea murriztea lortu zuten. Azken laurdena 57-59 hasi zuten. Lizarrako jokalariengan nekea nabaria zen; etxeko gazteak, berriz, antxintxika egiteko indarrez zeuden.

Lehia amaitzeko minutu baten faltan, 72-74 atzetik zeuden etxekoak baina, defentsa onari eta kontraerasoei esker, 81-80 jarri ziren. Sei segundoren faltan, bi jaurtiketa libre sartu zituen Arejolaleibark, markagailua 83-80 utziz.

Javi Zurbano entrenatzaileak esan zigun eurek eroan zutela partiduaren erritmoa, eta hala izan beharko litzatekeela beti.



A.E.

**Mikel Arejolaleiba** > MUko jokalaria

## "Iaz baino hobeto gabiltza; uste dut mantenduko garela"

**A.E.** > ARRASATE

**Pozik zegoen Mikel Arejolaleiba partidu amaieran. Ohituta dago partiduaren pisua bere gain hartzera, eta atzokoan ere horrela izan zen. Taldean erreferente bilakatu da.**

**Nola ikusi duzu gaur taldeak egin duen lana?**

Lan ona egin dugula esango nuke. Gaizki hasi gara, batez ere, jaurtiketekin; huts asko egin ditugu. Polikipoliki, entrenatzailearen animuekin aurrera egin dugu eta irabazteko gauza izan gara.

**Non egon da garaipenaren gakoa?**

Nire ustez, fisikoki gehiago izatean egon da gakoa. Eurak nagusiagoak direnez, ez dira ondo iritsi partidu amaierara. Kontraerasoak geratzeko gauza ez ziren amaieran, eta hor egin diegu min. Defentsan saiatu gara euren onenak defendatzen.

**Jaitsiera postuak jokatzen zabiltzate. Nola ikusten duzu taldea ligaxka horretan?**

Nik esango nuke iaz baino hobeto gabiltzala; eta iaz mantentzea lortu genuen, hortaz, aurten ere lortu dezakegu.

**Zeintzuk izango dira aurkari zuzenak?**

Bost garaipenekin talde asko gaude; nik uste dut Legarcia, adibidez, aurkari zuzena izan daitekeela.

> EMAKUMEZKOAK

### Partidu borobila jokatuta bigarren postuan da Eskoriatza

Eskoriatzako neskak garaipenarekin itzuli ziren zapatuan Donostitik. Bera Beraren aurka 41-61 irabazi zuten. Benetan lehia borobila jokatu zuten Fernando Rasoren neskek; presioa eginez eta defentsan sendo jokatuz, aurkariak baino askoz gehiago izan ziren.

Baloia ondo mugitu zuten eskoriatzarrek eta, batez ere, defentsan ibili ziren ondo. “Hasieratik erakutsi diegu eurak baino gehiago garela”, zioen Rasok amaieran. Atsedenera, 16 puntu goitik joan ziren eskoriatzarrak; amaieran, ostera, 20 puntu aurretik ziren. Eskoriatzak ziurtatu du, dagoeneko, maiatzean jokatuko den lauko finala.

> AUTONOMIKOA

### Aloña Mendi igoera postuan mantentzen da Bilbon irabazita

Aloña Mendiko talde nagusiak arazo barik irabazi zuen atzo Deusto Loiola Unibertsitatearen aurka, Bilbon: 83-56. Teorian, samur irabazteko lehia zen atzokoa; baina, oñatiarrek, batez ere hasieran, gogor egin behar izan zuten lan partidua aurrera ateratzeko.

Motel hasi zuten partidua Xabi Igartuaren mutilek; batez ere, atzean galdu zituzten puntuak. Atsedenera, 34-45 aurretik iritsi ziren oñatiarrak. Aldagelatik bueltan, defentsa gogortu zuten eta aurkariarekiko aldea 25 puntutan zabaldu zuten. Azken laurdenean, aldea mantendu besterik ez zuten egin; hala, Aloña Mendik sailkapeneko bigarren postua eskuratu du.

> GAZTE MAILA

### Gaizki jokatzeaz gain galdu egin zuten atzo Arrasateko gazteek

Irabazteko moduko lehia zen atzo Ointxe taldeko gazteek Iturripen jokatu zutena; baina, gaizki jokatu eta galdu egin zuten SDT Araberriren aurka: 66-71.

Jose Mari Balzategik zuzentzen duen taldeak, batez ere, erasoan jokatu zuen gaizki; jaurtiketa libre asko huts egin zituzten eta, halakoetan, aurkariek ez dute barkatzen. Atsedenera iritsi ziren 23 puntu bakarrik eginda; Balzategiren ustez, “gutxiegi”.

Aldagelatik bueltan, markagailua irauli eta 61-58 aurretik jarri ziren etxekoak; baina, pozak gutxi iraun zuen. Azkeneko hiru minutuetan, partidua irabazi zuten gasteiztarrek.




# Bergarako lau t'erdiko Soraluce Koop. finala

**Onsalo eta Yoldi**
Eguaztenean, martxoak 24, 22:15ean.

**Babesleak:** INDUSTRIAS ZANGUITU | BOLINTXO OKINTEGIA | GOKI ERREFORMAK, S.L.

Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

**TRIALSINA** > ARETXABALETAN

# Gipuzkoako txapelketako azken proban ibarreko partaideak, ondo

48 parte-hartzaile ibili ziren atzo Aretxabaletako zirkuituan; guztira, bost gune izan zituzten nor baino nor ibiltzeko neska-mutikoek



Parte-hartzaile bat proba bat pasatzen, epailea eta laguntzailea ondoan dituela. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARETXABALETA
Gipuzkoako txapelketako azken proba jokatu zuten atzo Aretxabaletan. 48 parte-hartzaile batu ziren kanposanturako bidean dagoen gunean. Mailetan banatuta, bost gune pasa behar izan zituzten. Esan behar da, goiz partean euri pixka bat egin zuela eta horrek asko zaildu zuela proba; izan ere, lokatzara egin zen eta txirrindulariak labaindu egiten ziren.

**ARETXABALETAKO PROBA**
Atzoko lana kontuan hartuta, Diego Barrio gasteiztarra nagusitu zen elite mailan; nesketan, Itziar Murua aretxabaletarra izan zen onena; gazte mailan, Markel Uriarte aretxabaletarra; infantiletan, Sergio Fernandez; alebinetan, Aimar Etxeberria; eta benjamin mailan, Andoni Perez. Proba amaieran, sariak eta garaikurra jaso zituzten parte hartzaile denek.

**GIPUZKOAKO MAILOTA**
Urtarrilean hasi zuten Gipuzkoako txapelketa; ordutik, bost proba egin dituzte: Hernanin, Pasaian, Oñatin, Urretxun eta Aretxabaletan –atzo–.

Proba guztiak kontuan hartuta, Jon Areitio hondarribiarra izan da Gipuzkoako onena; munduko txapeldunordea da Areitio. Maila bikaina du. Gazte mailan, Markel Uriarte aretxabaletarra da txapelduna; infantiletan, Unai Zunzunegi aretxabaletarra; alebinetan, Jon Madina oñatiarra; eta nesketan, Itziar Murua aretxabaletarra. Zorionak, bada, guztiei!



Jon Areitio, jauzia egiten. J.A.



Raul Ros, Benito Rosen anaia. J.A.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Amorebieta** | **60** | 31 |
| 2. **Real Sociedad B** | **58** | 31 |
| 3. Portugalete | **53** | 31 |
| 4. Elgoibar | **53** | 31 |
| 5. **Beasain** | **50** | 31 |
| 6. **Gernika** | **49** | 31 |
| 7. **Zamudio** | **47** | 31 |
| 8. **Durango** | **47** | 31 |
| 9. **Amurrio** | **45** | 31 |
| 10. **Basconia** | **45** | 31 |
| 11. **Zalla** | **42** | 31 |
| 12. **Arenas Getxo** | **40** | 31 |
| 13. **Lagun Onak** | **39** | 31 |
| 14. **Laudio** | **38** | 31 |
| 15. **Leioa** | **38** | 31 |
| 16. **Santurtzi** | **37** | 31 |
| 17. **Eibar B** | **35** | 31 |
| 18. **Aretxabaleta** | **34** | 31 |
| 19. **Retuerto Sport** | **24** | 31 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 3 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Lagun Onak-Elgoibar | 0-3 |
| Basconia-Amurrio | 3-1 |
| Durango-Salvatierra | 4-0 |
| Beasain-**Aretxabaleta** | 3-1 |
| Arenas-Eibar B | 0-3 |
| Santurtzi-Real Sociedad B | 0-0 |
| Gernika-Leioa | 3-2 |
| Laudio-Amorebieta | 2-0 |
| Zamudio-Portugalete | 0-2 |
| Zalla-Retuerto Sport | 3-0 |

**Hurrengoa**
**Aretxabaleta**-Durango

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **54** | 26 |
| 2. **Pasaia** | **54** | 26 |
| 3. **Aurrera Ondarroa** | **53** | 26 |
| 4. **Tolosa** | **45** | 26 |
| 5. **Oiartzun** | **41** | 26 |
| 6. **Aloña Mendi** | **40** | 26 |
| 7. Idiazabal | **38** | 26 |
| 8. **Bergara** | **35** | 26 |
| 9. **Trintxerpe** | **35** | 26 |
| 10. **Berio** | **34** | 26 |
| 11. **Mondra** | **32** | 26 |
| 12. **Ordizia** | **31** | 26 |
| 13. **Hernani** | **30** | 26 |
| 14. **Hondarribia** | **29** | 26 |
| 15. **Real Union** | **26** | 26 |
| 16. **EHU-Vasconia** | **24** | 26 |
| 17. **Euskalduna** | **23** | 26 |
| 18. **Beti Gazte** | **22** | 26 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| **Aloña Mendi**-Beti Gazte | 4-1 |
| Berio-**Bergara** | 2-1 |
| Ondarroa-Tolosa | 1-0 |
| Euskalduna-Hondarribia | 1-2 |
| Trintxerpe-Pasaia | 2-0 |
| EHU Vasconia-Real Union | 1-2 |
| Idiazabal-**Mondra** | 1-5 |
| Zarautz-Oiartzun | 1-2 |
| Ordizia-Hernani | 0-1 |

**Hurrengoak**
**Bergara-Aloña Mendi**
**Mondra-**EHU Vaconia

### BESTE KATEGORIAK

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

| | |
|---|---|
| Antzuola-Mutriku | 3-3 |
| Anaitasuna-Aretxabaleta | 5-0 |

**LEHEN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Axular | 4-3 |
| Mondra-Mutrikuarrak | 5-2 |

**LEHEN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Ikasberri-UDA Arizmendi | 2-1 |

**GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA**

| | |
|---|---|
| Lazkao-Mondra | 2-3 |
| Billabona-Aloña Mendi | 1-4 |

**GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Aretxabaleta Arizmendi-Pasaia | 2-5 |

**GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Soraluze-Arizmendi | 7-0 |
| Urola-Bergara B | 1-2 |

**EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi-Lagun Onak | 2-2 |

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Bergara | 6-1 |
| Aloña Mendi-Urola | 2-5 |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

**EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.**

| | |
|---|---|
| Hondarribia-Ford Mugarri | 32-30 |

**LEHEN TERRITORIAL MAILA**

| | |
|---|---|
| Pulpo-Soraluce BKE | 31-31 |

**FEDERAZIO SARIA**

| | |
|---|---|
| Tolosa-Soraluce BKE | 31-23 |
| Aloña Mendi-Rotula Estudio | 31-29 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

**SENIOR GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Kanpanzar ART-At. San Sebastian | 5-32 |

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Arrasate Durango-La Unica | 24-0 |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

**LEHENENGO MAILA, JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| MU-Legartzia | 83-80 |

**SENIOR AUTONOMIKOA**

| | |
|---|---|
| Deusto-Aloña Mendi | 83-56 |

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Bera Bera-Eskoriatza | 41-61 |

**GAZTEAK GIZON., PARTAIDETZA**

| | |
|---|---|
| Soraluce BKE-Oiartzun | 64-51 |
| Internacional-MU B | 53-64 |

**KADETE GIZON., PARTAIDETZA**

| | |
|---|---|
| Soraluze-MU B | 56-36 |

Harmailatik
**Debagoieneko kirola GOITBn**
Astelehenero 22:15ean.
Goitb Goiena Telebista
*Ikustekoa!*



**Nerea Mata** > Donostiko XVIII. Aerobithoiko irabazlea

# "Gogorra da, baina gustuko duzunean ez zaizu hain gogorra iruditzen"

NAROA ODRIOZOLA > BERGARA

**Nerea Mata arrasatearra dugu Donostiko XVIII. Aerobithoiko irabazle berria. Martxoaren 13an Antiguo auzoko Benta Berri kiroldegian bildu ziren aerobic zaleak eta orduak eman zituzten dantzan. Arrasatearrarekin izan gara bizi izandako esperientziaz hitz egiteko.**



Datorren urteko edizioan irakasle moduan arituko da Nerea Mata, aurtengoan lortutako sariari esker. TXOMIN MADINA

**Aerobic, step... zein ezberdintasun dago?**

Oinarria berdina da. Desberdintasun bakarra dago: aerobica lurrean egiten da inolako materialik gabe eta stepa base batekin egiten da, gora eta behera eginez. Baina bi modalitateak koreografikoak dira.

**Erritmoa jarraitzearena ez da batere erraza.**

Beno... dena bezala ikasi egiten da. Batzuei gehiago kostatzen zaie, besteei gutxiago baina ikasi egiten da. Gutxika hartzen zoaz eta konturatu orduko menperatua daukazu.

**Nondik datorkizu aerobic zaletasuna?**

Betidanik gustatu izan zait dantza egitea, txikitatik; euskal dantzen talde batean egon nintzen, ondoren gimnasia erritmikora pasatu nintzen eta 15-16 urterekin, aerobica ezagutu nuenean, bide hori hartu nuen. Jadanik, 17 urte daramatzat aerobica egiten.

**Gainera, aerobic irakasle izan zara. Nondik sortu zen ideia?**

Gustatzen zitzaidana zela ikusten nuen. Garai hartan nire irakaslea zenak animatu ninduen eta aerobic irakasle kurtsoa egin nuen. Ordutik, irakasle moduan aritu naiz hainbat gimnasiotan. Horietako batean denbora asko egon nintzen klaseak ematen eta bertan nengoela aukera izan nuen gimnasioarekin gelditzeko. Duela 6-7 urte hartu nuen beste sozio batekin eta, klaseak ematearekin batera, aurrera atera dugu.

**Adin desberdineko jendeari eman dizkiozu klaseak. Zeintzuei kostatzen zaie gehiago pausoak jarraitzea?**

Bost urtetik gorako neska-mutilei batuka eta aerobic klaseak ematen dizkiet. Horrez gain, hirugarren adinekoentzako gimnasia eskaintza ere badugu.

Jende nagusiari eta umeei gehiago kostatzen zaie pausuak jarraitzea. Lehenengoei ematen diezun informazioa asimilatzea gehiago kostatzen zaielako. Umeei dagokienez, kosta egiten zaie ikastea baina, behin hori eginda, erraztasun handia dute aurrera egiteko.

Hala ere, umeen eta hirugarren adineko taldeen gauzarik onena da oso maitekorrak eta esker onekoak direla. Egia da pazientzia gehiago eduki behar duzula eurekin baina merezi du, beste adinetako pertsonek baino gehiago eskertzen dizutelako.

**"Hirugarren adineko eta umeen taldeen gauzarik onena da maitekorrak eta esker onekoak direla"**

**Zaila da aerobic klaseak prestatzea?**

Bai, zaila da. Azken finean koreografoak ere bagara. Oso garrantzitsua da birziklatzea eta horretarako kurtsoetara joatea. Gu urtean bi edo hiru aldiz joaten saiatzen gara. Batzuetan koreografia prestatzeko bi ordu behar dituzu eta beste batzuetan ordu erdi.

**Donostiko XVIII. Aerobithoian parte hartu duzu eta lehenengoa izan zara profesional mailan. Zenbat kategoria daude eta zertan oinarritzen da horietako bakoitza?**

Amateur, profesional eta infantil mailak daude eta pertsona nagusienarentzat ere sariren bat zegoela uste dut. Kategoriak egiteko, adina eta profesionala zaren edo ez hartzen dute kontuan.

**Nolako esperientzia izan da?**

Oso esperientzia ona izan da. Maratoi askotan hartu dut parte baina duela 11 urtetik ez nuen parte hartzen eta oraingoan animatu zidatenez, joatera animatu nintzen. Lehen, urtean sei edo zazpi maratoietan parte hartzen nuen baina orain mundu horretatik apur bat aldenduta nengoen. Duela 11 urte parte hartu nuenean ere lehenengoa gelditu nintzen.

**Prestaketa berezia egin duzu bertan parte hartzeko?**

Ez dut inolako prestaketarik izan. Egunero 3-4 orduz ematen ditut klaseak eta Aerobithoia beste egun bat bezala izan da; agian, samurragoa, klaseak ematen dituzunean zure aldetik gehiago jarri behar duzulako.

**Nolakoa da Aerobithoia?**

Bertara heltzean irakasle desberdinak daude. Ordu erdiro irakaslez eta estiloz aldatzen dizute, aerobicaren barnean askotariko estiloak daudelako; aerodance, box... Estilo desberdinetako koreografiak planteatzen dizkizute, guztiak menperatzen dituzun ikusteko. Niri gehien gustatzen zaidan estiloa latinoa da: aerodance latinoa.

**Nola egiten da hiru ordutan gelditu gabe jarduteko?**

Zaindu egin behar zara eta egunero kirola egin behar duzu. Gogorra da, baina zerbait gustatzen zaizunean ez zaizu hain gogorra iruditzen.

**Zerbait aldatzen da horrelako lehiaketa bat irabazi ostean?**

Profesional bezala oso ona da, Aerobithoiaren irabazleak datorren urteko edizioan klasea emateko aukera duelako; baina bestela, ez da ezer aldatzen.

**Aurrera begira, baduzu proiekturik esku artean?**

Zabaltzear nagoen gimnasioan buru belarri nabil. Uneotan, hori da dudan proiektu nagusia.

SEGURTASUNA > AUTOETAKO AULKIAK

# Bere pisuaren araberako aulkian joan behar du umeak autoan

Atzeko aldeko erdiko eserlekuan jasotzen dira kolpe gutxien, alboetako edozein eserleku hobesten da ondoren, eta aurrekoa da hirugarren aukera

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Umeek euren eserlekuetan eta lotuta joan behar dute autoan doazenean. 150 cm baino gehiago izan arte behar dituzte horrelako segurtasun neurriak ibilgailuan joateko. Eserlekua non jarri behar den esateko orduan askotariko iritziak daude. Atzeko aldeko erdiko eserlekuan jasotzen dira kolpe gutxien, horren ondoren atzeko alboetako edozein eserleku hobesten da, eta hirugarren aukera aurreko eserlekua da, gidariaren ondokoa. Hori bai, umearen aulkia aurreko eserlekuan jartzea erabakiz gero, autoaren airbag sistema kentzea gomendatzen da, istripuren baten airbagak salto egiten badu umea kaltetu egin dezakeelako. Kontuan hartzeko aholkua da hori.

**PISU BAKOITZARI, BEREA**

Bizi-arriskudun lesioak nozitzeko aukera bost aldiz handiagoa du inolako loturarik gabe bidaiatzen duen umeak. Eta umearendako aulkia erosterakoan, gomendagarria da erosi aurretik aulki hori norberaren autoan probatzea. Autoan jartzen denean ere, komeni da aulkia ondo lotuta, ondo egokituta dagoela ziurtatzea.

Autoan eramateko umearen eserleku egokia erosteko, umearen pisua zein den jakitea komeni da, pisu bakoitzari eserleku mota bat edo beste dagokio-eta.




Ume bat, autoko eserlekuan jarrita. GERARDO PORRAS

**GOMENDIOAK**

**0 MULTZOA: 0-10 KILO**
- Haurtxo jaioberriarentzako kapazua.
- Haurtxoa etzanik doa, sabeleko uhalak atxikita.
- Espazio handia betetzen duen arren, haurra eroso doa, ezagun duen bizitokian.
- Segurtasunezko aulki-otzara. Aulki txikia, inklinatua, haurtxoaren gorputzari egokitua.

**0+ MULTZOA: 0-13 KILO**
- Segurtasunezko aulki-otzara: bestea baino handixeagoa.

**1. MULTZOA: 9-18 KILO**
- Segurtasunezko aulkia: haurrarentzako aldaketa handiena aurrera begira jartzea da, haren bistaren mesedetan.
- Ibilgailuaren atzealdeko eserlekuetan kokatzekoa, nagusiki.

**2. MULTZOA: 18-25 KILO**
- Uhala egokitzeko moduko eserlekua.
- Ibilgailuko uhalarekin lotzen denez, ezin erabil daiteke atzealdeko eserlekuetan uhalik ez daukaten ibilgailuetan.
- Bizkarraldez hornituriko kuxin jasotzailea: aurrekoaren antzekoa izaki, honetan kuxina eta bizkarraldekoa bereizi egin daitezke.

**3. MULTZOA: 22-36 KILO**
- Kuxin jasotzailea: eserleku gainean jartzen den elementu honek umea altxa egiten du, helduentzako segurtasun-uhalarekin atxiki ahal izateko.
- Espazio txikia betetzen duenez, erabili behar ez denean gorde egin daiteke.




Joxe Amiama, GOITBko platoan. JULEN IRIONDO

Joxe Amiama > Psikopedagogoa

# "Aitajaun-amandreen funtzioa goxoa izan da beti, lehen eta orain ere bai"

**O.E.** > ARRASATE

**Aitajaun-amandreek bilobekin duten erlazioaz eta betetzen duten hezitzaile funtzioaz hitz egin du Joxe Amiamak Oñatiko Pake Leku erretiratuen egoitzan.**

**Aitajaun-amandreen rolak: ez dira berdinak lehengoak eta oraingoak. Berriz ikasi behar dugu aitaita-amama izaten?**

Euren funtzioa beti goxoa izan da, eta hori ez da aldatu. Familiak eta beharrak ezberdinak dira, hori bai, eta egia da batzuek aitaita-amamen beharra dutela haurrak zaintzeko.

**Zertan nabarmentzen dira aldaketak biloben eta aitaita-amamen arteko erlazioan?**

Prozesuan aldaketa bat egon da. Lehen, aitaita-amamek gauzak irakasten zizkieten bilobei eta hori momentu garrantzitsua zen umeendako. Egun, bilobek eurek irakasten dizkiete hainbat gauza aitaita-amamei: segapotoa nola erabili, adibidez.

**Zeintzuk dira aitajaun-amandreek bete beharreko funtzio nagusiak?**

Nagusiena da harremanak izatea. Kartekin jolasten badira, bilobak irabaziko du beti, aitajaun-amandreek bilobarekin egon gura dutelako. Aldiz, euren funtzioa hezitzailea bada, aldatu egiten dira gauzak, eta funtzio hori ez da aitaita-ama-ma guztien gustukoa.

Bizioak emateko ere badaude aitajaun-amandreak. Umeak amandrearen kroketak jan gura baditu, zergatik ez? Gurasoei dagokie euren etxean denetik janaraztea. Arazoa sortzen da umeek egunero jaten badute aitaita-amamen etxean gurasoak beharrean daudelako.

Bilobekin egoteak euren bizimodua errepasatzen laguntzen die aitajaun-amandreei, eta hori gustatzen zaie: euren seme-alabak nola jaio ziren, eskolan izandako gatazkak ...

**Zama eta ardura gehiegi ematen zaie aitajaun-amandreei?**

Familia batzuetan gertatzen da, bai, eta aitajaun-amandreen kulturagatik, kulpa moduan hartzen dute. Batetik, euren gustuko gauzak egin gura dituzte, eta, bestetik, eguneroko konpromisoa bete gura dute.

**"Bizioak emateko ere badaude aitajaun-amandreak, beste gauza batzuen artean"**

**"Familia batzuetan gertatzen da ardura gehiegi ematen zaiela aitaita-amamei"**

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera
guraso.com



**> HAMLET**
Bi hilabeteko etenaren ostean, madrildarrek bete egin zuten 3 Aretoa **> 26**



**> SAN ANTON**
Bilboko abesbatza, Aretxabaletakoaren urteurren ekitaldietan **> 26**



**> THE WET BAND**
Zapatuan aurkeztu ziguten debagoiendarroi *Waterproof* lan berria **> 27**



Txikitxuko dantzari poxpolinak Arrasaten dantza erakustaldirako prest 70eko hamarkada bukaeran. TXIKITXU-ARROSTAITZ



Txikitxukoen erakustaldia Arrasateko plazan, 70eko hamarkadan. TXIKITXU-ARROSTAITZ

# Zorionak Txikitxu-Arrostaitz!



Txikitxu, 70eko hamarkada. TXIKITXU-ARROSTAITZ



Arrostaitzeko dantzariak Santamas egunean Jokin Zaitegin, 96an. TXIKITXU-ARROSTAITZ



Arrostaitz dantza taldekoak Dantzari Egunean, Aretxabaletako herriko plazan, 2004an. TXIKITXU-ARROSTAITZ



Arrostaitzeko dantzariak Arrangoitzen, Iparraldean 2005ean. TXIKITXU-ARROSTAITZ

## OSPAKIZUNA

Txikitxu-Arrostaitzen urteurrena ospatzeko antolatutako jai berezian parte-hartzeko deia egin diete 40 urteotan taldeetatik pasatakoei

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Arrasateko Txikitxu dantza taldea 1970. urtean sortu zuten Marga Mercader dantzari eta irakasleak eta Eugenio Gartzia txistulariak, senar-emazteak biak. 40 urteren ostean, Marga Mercaderrek kontatu digu ilusio eta gogo berdinarekin jarraitzen dutela: "Urte oso politak izan ziren eta jendea prest zegoen dantza ikasteko; oraingoa ere garai ederra da". Lehenengo Txikitxu sortu zuten eta 20 urte beranduago etorri zen Arrostaitz: "Gaztetxoekin hasi ginen, 4 eta 14 urte bitartekoekin. Baina Txikitxuko dantzariek jarraipena nahi zuten eta Arrostaitz sortu genuen 20 urteren ostean".

Jende asko igaro da bi dantza taldeetatik. "Momentu honetan, 120 dantzari eta txistularik osatzen dute Txikitxu-Arrostaitz. Sorreran, 30 bat ginen eta erraztasunak izan genituen garai hartan aurrera egiteko", azaldu digu Mercaderrek.

**OSPAKIZUN BEREZIA**

Asmoa da 1970ean hasi eta 40 urte hauetan dantza taldeetatik igaro diren guztiak batzea. Urrian egingo dute urteurren ekitaldia eta interesa dutenendako deia egin dute. Hiru bide daude parte-hartu nahi dutenendako: 679 23 21 91 telefonora deitu (18:00-20:00); *txikitxuarrostaitz@gmail.com* helbidera mezua bidalita; eta astelehen, eguazten eta eguenetan dantzako lokalera gerturatuta (18:30-19:30). Apirilaren 1era arte dago izena emateko epea zabalik.

"Urte guzti hauetan ibilitako pertsona eta dantzariek bat egitea nahi dugu. Batzen garen jendearen araberako ikuskizuna izango da. Entseguekin lehenbailehen hastea da gure asmoa", gaineratu du Mercaderrek.

KRONIKA > HAMLET

# Animaliak bizirik dirau eszenatokian

**NON:** 3 Aretoa, Arrasate.
**EGUNA:** Zapatua, martxoak 20.
**ZENBAT JENDE:** 120 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Bi ordu.

MAIDER ARREGI > ARRASATE

"Trinkotasuna, indarra eta eromena". Horrela deskribatu dute zaleek Hamleten emanaldia. *Molly*-ren taldea indartsu itzuli da eszenatokira eta, bi hilabete geldi egon ostean, gosea ase dute. Arrasatekoa lehen emanaldia izan da eta *Molly* abeslariak desiratzen zeudela kontatu digu: "Ikaragarrizko gogoa geneukan zuzenekora bueltatzeko eta gainera Arrasaten! Zaleak ikaragarriak dira, sekulako energia transmititzen digute". Hamar bat urte igaro dira Arrasateko gaztetxe zaharrean Berri Txarrak gazteekin –sasoi hartan hasi berriak ziren– emanaldia eskaini zutenetik. Orduan, maketa aurkeztu zuten; eta orain, ibilbide oparoaren ostean, diskoetxe berdinarekin –Roadrunner–, diskoa kaleratu dute. Base indartsua eta Alberto Marín gitarra-jotzaile ospetsuaren *riff* gogorrak nagusi, 3 Aretoa bete egin zuten madrildarrek. Eszenatokian asko mugitzen dira eta oso talde "elektrikoa" direla esan ziguten. Esperimentatzea eta ikuskizuna ematea gustuko dute, gainera.

Esperientzia handia dauka Hamletek eta hori transmititu egiten du. *La puta y el diablo* azken lana aurkeztera etorri ziren, baina zaleak abesti mitikoak entzuteko irrikaz ere bazeuden. Hala, 23 abestiz osatutako *set-list* bikaina eskaini zuten. Eta, noski, dagoeneko taldearen ereserki bilakatu diren *Jodido facha*, *De mentes cobardes*, *Revolución* edota *Antes y después* abestiekin eromena nagusitu zen 3 Aretoan.

Aurreko bi diskoekin alderatuta, hasierako musika egitera itzuli dira. Horren eredu dugu *bisean* abestu zuten *Siete historias diferentes* singlea. "Lan berria inoiz egin dugun musikalena da eta oso oldarkorra. Hamleten lehen etapa gogorarazten du". Ez zaie gustatzen estilo bakarrarekin identifikatzea: "Etiketak ez zaizkigu gustatzen. Denetik egiten dugula esan digute: hard rocka, post metala, nu metala… gu metal talde bat gara eta listo!". Bederatzi diskoren ostean, ukitu ezberdinak jasotzea saihestezina izan dela eta lan berriak zaleen artean harrera bikaina izan duela kontatu digu *Molly*-k.

Metalaren egoeraz galdetuta, garbi dute metala bizirik dagoela: "Egia da atzerrian metala errotuagoa dagoela, baina hemen ere badauzkagu zale fidelak. Euskal Herrian metalak indar handia dauka, jatorri sendoa du eta sekulako taldeak daude: Anestesia, Legen Beltza…".

Gauari hasiera eman ziona Infernoise talde madrildarra izan zen. Bortitzak dira eszenatokian eta, lan berriak denbora gutxi duen arren, bikain defenditu zuten. "Emanaldiz emanaldi hobetzen ari dira. Gure lagunak izateaz gain, talde paregabea osatzen dute eta sekulako energia transmititzen dute taula gainean", azaldu digu *Molly*-k. Hamlet boskoteak bira honetan bide lagun izan du talde madrildarra. Infernoise talde oso "potentea" eta "kañeroa" dela azpimarratu nahi izan digute Hamleteko mutilek.

**EUROPAKO BIRA APIRILEAN**

Roadrunner Records-ekin kaleratu dute *La puta y el diablo* lana. "Prestigio itzela dauka metal munduan eta Europako bira diskoetxe honekin egitea aukera paregabea da guretzat". Apirilean egingo dute bira Europan barrena, Sepulturarekin batera.



Hamlet boskote madrildarra gogotsu itzuli da eszenatokietara eta, bi hilabete geldi egon ostean, Arrasateko 3 Aretoa jendez lepo bete zuen. JOSETXO ARANTZABAL

KRONIKA > ARETXABALETAKO ABESBATZAREN 30. URTEURRENA

# San Anton abesbatzaren dotorezia opari

**NON:** Jasokunde parrokian.
**EGUNA:** Barikua, martxoak 19.
**ZENBAT JENDE:** 70 bat lagun.
**IRAUPENA:** Ordu bete inguru.

M.A. > ARETXABALETA

Aretxabaletako abesbatzak 30 urte bete zituen barikuan eta opari ederra egin zion Bilboko San Anton abesbatzak. Aretxabaletako Jasokunde parrokia beteta, emanaldi aparta eskaini zuten bilbotarrek. "Maila ikaragarria dute, eta jendearendako horrelako abesbatza bat entzutea ona dela uste dut", azaldu zigun Angel Barandiaran Aretxabaletako abesbatzako zuzendariak. Errepertorio zabala eskaini zuten, polifonia, folklore eta konpositore famatuen obrak abestuz. Hala, Clément konpositore handiaren *Trois petites chansons* abestiak eman zion hasiera kontzertuari. Bilboko abesbatzak erronkak atsegin ditu eta ondoren etorri zen Haydnen, Mendelssohn edota Dvorák artisten obren txanda. Txalo zaparrada handienak, Randallen *Alleluia* borobilarekin etorri ziren. Zubizarretaren *Ené qué risas hisemos* abestiak ere, humorez, giroa berotu zuen.



Bilboko San Anton abesbatzak errepertorio zabala aurkeztu zuen Jasokunde parrokian barikuan. MAIDER ARREGI

**CD-A ETA DVD-A EGINGO DITUZTE**

Uztailean, Nemesio Otaño konpositore jesuitaren abestiekin osatutako diskoa kaleratuko du Aretxabaletako abesbatzak. DVD bat ere kaleratuko dute 30 urtetan jasotako irudiekin. Asmoa da abesbatzaren historia oparoa batzea erreportaje zabal batean.

ANTZERKIA

# Oihulari Klown-en narrazio zirkuitua

M.A. > BERGARA

Urtero moduan, aurten ere Oihulari Klown antzerki taldeak Euskal Herriko txoko askotan narrazio zirkuitua egingo du. Debagoienera ere etorriko da narrazio zirkuitua, martxoan.

Hala, hilaren 25ean, eguenean, Bergarako Pol-Pol tabernan, ipuin kontaketa saioaz gozatzeko aukera izango da, 22:30ean hasita.

**IPUIN SAIOA**

Chiara Taldeko Marta eta Reyes Guijarro Madrileko ipuin kontalariak etorriko dira Bergarara. *Pasiones irrefrenables* izeneko ipuin saioa eskainiko dute, aipatu bezala, Pol-Pol tabernan.

**KRONIKA** > THE WET BAND, DANBAKAKO TALDE IRABAZLEA

# Goxotasuna eta indarra batzean

**NON:** 3 Aretoa, Arrasate.
**EGUNA:** Barikua, martxoak 19.
**ZENBAT JENDE:** 80 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.


The Wet Band taldeko kideek dena eman zuten taula gainean. JOSETXO ARANTZABAL

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Danbakako hirugarren edizioa irabazi zuenetik ez da geratu talde mutrikuarra. *Waterproof* lan berria astintzeari ekin diote eta barikuan aurkeztu ziguten debagiendarroi. Rocka oinarri hartuta, ukitu latinoak, funkya, soula edo stonerra ere entzuteko aukera izan zen. 1970eko hamarkadako hard-rockerako tendentzia dauka taldeak baina, era berean, fusioak egitea ere gustuko du. Ainararen ahots goxo eta aldi berean indartsuak, edonor txunditzeko ahalmena daukala argi geratu zen 3 Aretoan.

Endika Lekube gitarra jotzailea gustura azaldu zen: "Giroa beroa izan da eta taldekideok gustura egon gara; bereziki, kide berria, Endika Kerexeta saxojotzailea". Eszenatokian eskarmentua badauka The Wet Bandek eta badaki ikuslea nola erakarri. Amaiera borobila eman zioten Tina Turnerren *Simply The Best* abestiarekin.

**UEK ETA KRAUSSK**

UEK ondarrutarrak eta Kraussk mutrikuarrak ere emanaldia eskaini zuten. Nahiz eta gaztea izan, Kraussk taldeak aski izan zituen 40 minutu metal doinu gogorrekin 3 Aretoa astintzeko.

UEK taldea, berriz, hiru musikari eskarmentudunek osatzen dute. Ukitu askodun rocka dotoreziaz aurkeztu zuten, eta bateria-jotzaile berriak maila ezin hobea erakutsi zuen bere ibilbideko laugarren kontzertuan.


JOSETXO ARANTZABAL

## Bizardunak taldearen emanaldi borobila

Bergarako gaztetxea inoiz baino beteago, eta jai giro ederrean: Bizardunak talde nafarrak sekulako emanaldia eskaini zuen barikuan. Jarraitzaileek, dantzan eta saltoka, sekulako gozatua hartu zuten. Zerbeza eta giro *irish-euskalduna* ez ziren falta izan. Antolatzaileak pozik geratu ziren zer nolako arrakasta izan zuen ikusirik.

**OSASUNA** > ZAINTZAILEA EGOKI ZAINTZEAREN GARRANTZIA

# Zaintzailea naizenean, nork zaintzen nau ni? (I)

Gaurko gizartean ematen ari den aldaketetako bat gure senitarteko nagusiei dagokiena da. Oro har, euren gurasoak beraiek zaindu zituzten baina, egun, hori egitea zail samarra litzateke, daukagun bizimodua ikusita. Baina eurei kosta egiten zaie senitartekoa ez den norbait onartzea zaintzarako. Zaintza horrek konpromisoa hartzea eta ahalegin fisikoa ez ezik, ahalegin afektibo eta emozional sendoa ere eskatzen ditu sarritan; eta horrek, era berean, eskatzen ditu prebentzio-neurriak zaintzailearen zein gaixoaren ongizateari begira. Kasurik gehienetan, zaintzaileak gaixoen ongizatearen biran egon ohi dira, askotan euren bizitza bigarren mailan utziz. Horrek, sarri, tentsioa eta ondoeza eragiten ditu. Bada, bi aste hauetan hainbat aholku emango ditugu zaintzaile horientzat.

**ZER EGIN DEZAKE ZAINTZAILEAK BERE BURUA ERE ONDO ZAINTZEKO?**

1. Entzun "alarma-hotsak" : nekatuegi sentitzen zarenean edo egoeraren batek gainezka egindakoan, zeure buruaz arduratzeko momentua da.

2. Eskatu laguntza: neurri horrek benetan laguntzen du zaintza atsegingarriagoa egiten eta, era berean, ardurak eta tentsioak partekatzen.

3. Jar iezazkiozu mugak zaintzari: "neuk bakarrik dakit ondo zaintzen" edo "nirekin baino ez du nahi" bezalako pentsamenduak, oro har, okerrak dira. Ahal den neurrian, oso garrantzitsua da gaixoaren autonomia sustatzea.

4. Etorkizunari begiratu: arazoei aurre egin eta erabakiak hartu behar dituzu, egoera larria izatera iritsi baino lehen. Horretarako, garrantzitsua da gaixotasunaren bilakaeraren jabe izatea, gainerako senitartekoekin bilerak edukitzea eta beste pertsona batzuei kontsultak egitea.

5. Menpekotasuna duen pertsona zaintzeak berarekin dakar hainbat sentimendu azaleratzea: batzuk onak (maitasuna adieraztea, egoera zailak gainditzea…) eta beste batzuk txarrak (haserreak, tristurak, norberarenganako errukia…). Horiek sentitzeko eskubide osoa duzu, garrantzitsuena da ikastea horiek antzematen eta kontrolatzen.

6. Zaindu zure osasuna (hurrengo artikuluan).

Izan kontuan: gaixoa hobeto egongo da bere burua egoki zaintzen duen zaintzailearen ondoan.


Argazkian, zaintzaile bat maitakor ageri da gaixoarekin. ARIZMENDI

ZAINTZAILEAREN PROFILA:

- Zaintzaile gehienak emakumezkoak dira.
- Emakume zaintzaileen artean %43 zaintzen duten pertsonaren alabak dira, %22 emazteak eta %7,5 errainak.
- Zaintzaileen batez besteko adina 52 urtekoa da (%20 65 urtetik gorakoak dira).
- Gehienak ezkonduta daude (%77).
- %60 inguru zaintzen duten pertsonaren etxean bizi dira.
- Zaintzaileen %60k ez dute beste inoren laguntzarik izaten.
- %80k ez du ordainsaririk jasotzen.
- Gutxitan trukatzen dira zaintzaile nagusia eta gainerako senideak gaixoa zaintzeko.
- Zaintzaileetako batzuk adineko pertsona zaindu ez ezik, familiako beste eginkizun batzuk ere bete behar izaten dituzte (seme-alabak eta bikotea).
- Senitarteko gaixoaren aldetik etenik gabeko zaintzaren beharra antzematen dute.

**Datorren astean...**

Eski denboraldi osasuntsua. | Eskia eta bere arriskuak. | **Eskirako prestakuntza fisikoa eta entrenamenduak.** | Eskiko lesioak eta berauek errekuperazioa. | Pistaz kanpoko eskia. | Mendiko eskia.

Arizmendi ikastola PRO 2.0 PROFESIONALAK
Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

# IRAGARKI SAILKATUAK

| 1. ETXEBIZITZAK | 3. LOKALAK | 5. IRAKASKUNTZA | 7. ANIMALIAK | 9. HARREMANAK |
|---|---|---|---|---|
| 101. SALDU | 301. SALDU | 501. JASO | 701. SALDU | 901. AGURRAK |
| 102. EROSI | 302. EROSI | 502. EMAN | 702. EROSI | 902. HARREMANAK |
| 103. ERRENTAN EMAN | 303. ERRENTAN EMAN | 503. BESTELAKOAK | 703. EMAN | 903. DEIAK |
| 104. ERRENTAN HARTU | 304. ERRENTAN HARTU | | 704. BESTELAKOAK | 904. BESTELAKOAK |
| 105. ETXEAK OSATU | 305. BESTELAKOAK | | | |
| 106. BESTELAKOAK | | | | |
| **2. GARAJEAK** | **4. LANA** | **6. MOTORRA** | **8. DENETARIK** | **10. RELAX** |
| 201. SALDU | 401. ESKAINTZAK | 601. SALDU | 801. SALDU | |
| 202. EROSI | 402. ESKAERAK | 602. EROSI | 802. EROSI | |
| 203. ERRENTAN EMAN | 403. BESTELAKOAK | 603. ALOKATU | 803. EMAN | |
| 204. ERRENTAN HARTU | | 603. KONPONDU | 804. HARTU | |
| 205. BESTELAKOAK | | 604. BESTELAKOAK | 805. TRUKATU | |
| | | | 806. GALDU | |
| | | | 807. AURKITU | |
| | | | 808. BESTELAKOAK | |

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

***sailkatuak@goiena.com*** edo ***www.goiena.net/sailkatuak***

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 20 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxebizitza salgai edo errentan. Hiru logela, bi bainugela, bi balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailu eta garaje itxiarekin. Jantzita. Deitu 687 11 07 21 edo 617 00 37 30 telefono zenbakietara.

**Aretxabaleta.** 72 metroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. Trastelekuarekin. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

**Arrasate.** Zarugalde kalean 89 metro koadroko etxebizitza salgai, 24 metro koadroko garajearekin. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bi komun. Deitu 943 77 13 91 zenbakira.

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela-egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 euro. 35 metro koadroko garaje eta trastelekua, aukerakoak, 66.000 euro. Deitu 659 72 06 64 zenbakira.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale Zaharrean. Bi logela, sukaldea, komuna, egongela eta trastelekua argi patioan. Igogailuarekin. Jantzia. 240.000 euro. Deitu 652 70 12 49 telefonora.

**Oñati.** 85 metro koadroko etxebizitza salgai Obispo Otadui 13an. Hiru logela, sukaldea, egongela, komuna, trastelekua eta 49 metro koadroko garajea. 659 05 11 57 edo 630 52 17 89.

**Oñati.** Kale Barrian etxe berria salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Prezio interesgarria. Deitu 665 73 96 51 telefono zenbakira.

**Oñati** 80 metro koadroko etxebizitza salgai plazatik 100 metrora. Sukaldea, egongela, lau logela eta komuna. 240.000 euro. Deitu 687 32 99 57 edo 636 32 62 97 telefono zenbakietara.

### 102. EROSI

**Etxebizitza** erosiko genuke Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasaten. Hiru logela edukitzea ezinbestekoa, baita igogailua ere. 200.000 euroraino. Partikularrekin bakarrik hitz egingo dugu. 663 72 78 23.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Benidorm.** Etxebizitza ematen da errentan Levante hondartzako lehenengo ilaran. Bi logela eta aparkalekua. 630 41 84 65.

**Oñati.** San Lorentzo auzoan hiru logela, egongela, bi bainugela, sukaldea eta bi balkoi dituen etxebizitza errentan ematen da. Berogailuz eta altzariz hornitua. 600 euro. 657 71 63 85 edo 943 00 58 54.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza behar du errentan familia batek. 650 62 12 94.

**Bergara.** Hiru logeladun etxebizitza errentan hartu nahi dugu urtebeterako. 629 33 26 34.

**Bergaran.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 699 09 46 26.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela jantzia ematen da errentan, erdigunean. Internetekin. Telebista, hozkailua eta abar logelan bertan. 647 28 82 41 edo 943 79 74 13.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. 619 78 63 41.

**Bergara** erdialdean bi gela ematen dira errentan. Bata txikia eta bestea handitxoagoa. 943 03 62 00 edo 649 63 23 24.

**Bergara.** Bi logelako apartamentuan, logela bat ematen dut errentan. 250 euro gastuak barne. 626 86 67 36.

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza osatzeko pertsona baten bila gabiltza. 610 31 02 61.

**Oñati.** Logela ematen da errentan. Deitu 688 61 57 79 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** 18 metro koadroko garaje itxia salgai. Deitu 685 73 58 55 telefono zenbakira.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje bat hartuko nuke errentan Bolu auzoan. 658 73 35 96.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean garaje bat hartuko nuke errentan. 600 02 32 19 edo 646 69 77 77.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**DEBAGOIENA**

**Estetizien profesionala behar da. Urtetako esperientziarekin.**

**686 67 34 66**

### 402. ESKAERAK

**35 urteko** mutil brasildarra, legezko dokumentuekin, gertu nagusiak zaintzeko. Geriatria ikastaroa egin dut eta esperientzia dut. Interesa duenak dei dezala 634 85 69 78 telefono zenbakira.

**Arrasate edo Bergara.** Bertako emakume arduratsua gertu sukaldari laguntzaile lan egiteko. Esperientziarekin. Menuetan, plater konbinatuetan eta pintxoetan. Interesa duenak dei dezala 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Arrasate edo Bergara.** Debagoieneko esperientziadun neska gertu nagusiak zaintzeko. Interesa duenak dei dezala 637 18 07 23 telefonora zenbakira.

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618 00 08 28.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusiak edo umeak zaindu, plantxa eta abar. Deitu 699 54 17 27 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. Harremanetarako deitu telefono honetara: 647 16 40 49.

**Arrasate.** Zerbitzari edo garbiketa lanak egingo nituzke. Interesa duenak dei dezala 619 78 63 41 telefono zenbakira.

**Arrasaten edo Bergaran** umeak zainduko nituzke; esperientzia daukat. Deitu 696 84 19 51 telefono zenbakira.

**Bergara eta Arrasate.** Emakume gaztea erizain laguntzaile lan egiteko gertu. Deitu 943 76 52 34 edo 677 09 72 68 telefono zenbakietara.

**Bergara.** Asteburuetan edozein lan egiteko gertu. Deitu 654 98 69 14 telefono zenbakira.

**Bergara.** Neska gertu goizetan etxeko lanak egiteko. Deitu 656 73 64 51 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** 50 urteko neska eskoriatzarra, euskalduna, gertu nagusiak zein umeak zaintzeko edo elkarteak-eta garbitzeko. Egun osorako prest. Harremanetarako deitu telefono honetara: 607 68 58 76.

**Debagoiena.** Aste bukaeretan lan egingo nuke Bergaran edo inguruan. Nagusiak zaintzen eta garbitasun lanak egiten. Deitu 699 09 46 26 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Debagoieneko neska lanerako prest. Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke. Yoana. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Deitu 691 03 25 02 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Egun erdiz zein etxean bertan bizi izanda. Deitu 626 78 22 95 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. Deitu 689 88 97 66 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu sukaldari laguntzaile lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko. Orduka edo asteburutan. Deitu 697 93 73 32 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, bertan bizi izateko edo kanpoko langile gisa. Harremanetarako deitu telefono honetara: 689 88 97 66.

**Debagoiena.** Mutil gaztea mendian lan egin edo banatzaile lanak egiteko gertu. Harremanetarako deitu telefono honetara: 606 78 35 94.

**Debagoiena.** Mutila gertu margolaritzan, eraikuntzan edo tabernan lan egiteko. Harremanetarako deitu telefono honetara: 697 88 35 62.

**Debagoiena.** Neska euskalduna prest pertsona nagusiak zaintzeko asteburu zein jaiegunetan, egun osoan. Klinika laguntzaile tituluduna eta etxean bertan bizi izateko gertu. Harremanetarako deitu telefono honetara:943 74 82 09.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Etxean bizitzen, edo bestela. Jaiegunetan eta asteburuetan ere lan egiteko gertu. Klinika laguntzaile titulua daukat. Harremanetarako deitu telefono honetara 943 74 82 09 eta Itsasorengatik galdetu.

**Debagoiena.** Sei urteko esperientzia dut nagusiak zaintzen eta etxean lo egiten edo egunean zehar lan egingo nuke. Bestelako lanetarako ere gertu nengoke. 638 89 98 60.

**Lantxoak egiteko** gertu: elektrizitatea, margotzea, iturgintza, eta abar. Gorkagatik galdetu. Harremanetarako deitu telefono honetara: 692 26 27 69.

**Mutil** brasildarra, 35 urtekoa, sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbitzaile jarduteko gertu. Zerbitzari laguntzaile ikastaroa egin dut Gamarrako ostalaritza eskolan. 945 56 27 80 edo 634 85 69 78.

**Oñati.** Neska euskalduna etxebizitzak eta atarteak garbitzeko gertu. Harremanetarako deitu telefono honetara: 635 70 07 92.

**Oñati.** Neska euskalduna, arduratsua, haurrak zaintzeko eta etxeko gauzak egiteko prest. Interesatuak, deitu 618 09 47 87 edo 943 78 15 10 telefono zenbakietara.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut Bergaran. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Interesatuak, deitu 654 94 87 26 telefonora.

**Bergara.** Kimikan lizentziadun batek matematikako, fisikako eta kimikako eskola partikularrak ematen ditu Bergaran. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientzia. Interesatuak, deitu telefono honetara: 648 06 79 85.

**Eskola partikularrak.** Irakasle ikasketak dituen neska gertu Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako lehenengo ziklokoikasleei eskola partikularrak emateko. Interesatuak, deitu telefono honetara: 655 71 39 27.

**Oñati.** Esperientziadun irakasleak eskola partikularrak ematen ditu edo etxeko lanak egiten lagundu. 6-12 urte bitartean. Arratsalde edo gauetan deitu. Interesatuak, deitu telefono honetara: 651 70 85 13.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Honda Varadero 1000** motorra salgai. 2006koa. 23.000 kilometro. Egoera oso onean. Errebisioak eguneratuta. Estrak: hiru maleta, eskumuturrak berotzekoa, defentsak, depositua babestekoa, eta abar. Interesatuak, deitu telefono honetara: 605 71 24 73.

**Nissan Micra** automatikoa salgai. Gidatzen erraza. Ia berria. 45.000 kilometro. Interesatuak, deitu telefono honetara: 649 19 64 04.

**Opel Vectra 1.800** 16 V autoa salgai. Mendeurrenekoa. Ekipamendu osoa eta bola. 170.000 kilometro. 2000 urtekoa. Gomendatzeko modukoa. 2.200 eurotan salgai. Interesatuak, deitu telefono honetara: 662 02 92 78.

### 602. EROSI

**125 cc-ko motorra.** Erabiltzen ez duzun 125cc-ko motor hori erosiko nizuke. Interesatuak, deitu telefono honetara: 647 31 64 41.

## 7/ ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Arratoi txakurra**. Hiru hilabete dituen arratoi txakurra oparitzen da. Arra. Beltza. Interesatuak, deitu telefono honetara: 686 07 61 60.

**Txakurkumeak** ematen dira opari. Setter eta Border Collie arteko gurutzaketa. Hiru hilabetekoak. Txertoak ipinita dauzkate. Debagoienean. Interesatuak, deitu telefono honetara: 619 28 32 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Angiozarren** 1.500 metro koadroko lursaila salgai. Eraikitzeko baimena duena. Bi bizitzako etxea egiteko. 180.000 euro. 647 51 52 54.

**DVD- erreproduzitzaile unibertsala,** Best Buy LTD sintonizatzaile eta guzti. USB bidez telebista grabatu eta multimedia edukiak ikus daitezke. Erabili gabea. 40 euro (dendan 60 euro). Easy Home Combo Rec markakoa.

**Argazki kamera.** Nikon D60 reflex digitala salgai. Ordezko bateria opari. Manu. Deitu 634 46 68 65 telefonora.

**Argazki kamera** ia berria salgai. Lumix FZ 18, bi bateria eta zorroa. Prezioa adosteko aukera. Interesatuak, deitu telefono honetara: 615 70 77 10.

**Gitarra elektrikoa.** Academy markako gitarra elektrikoa salgai 60 eurotan. Gutxi erabilia. Interesatuak, deitu telefono honetara: 626 94 16 42.

**Karabana** salgai. Egoera ezin hobean. 2005ekoa. Debagoienean. Interesatuak, deitu telefono honetara: 685 75 43 79.

**Koltxoia** salgai. 90 cm. Berria. Prezioa adostuko da. Interesatuak, deitu telefono honetara: 670 08 12 16.

**Kotxe-kapota eta aulkia.** Silver Cross etxeko kotxe-kapota bere poltsarekin eta umea handi egiten denerako Bambino World aulkia. Dena 400 euro, negoziagarri. Arrasate. Interesatuak, deitu telefono honetara 679 23 27 93 eta Tamaragatik galdetu.

**Kotxe-kapota.** Bebe Confort etxeko kotxe-kapota saltzen dut. 150 euro, negoziagarriak. Arrasate. Interesatuak, deitu telefono honetara 679 23 27 93 eta Tamaragatik galdetu.

**Landareak.** 6 urteko landareak. Tuya Plicata eta Espela. Interesatuak, deitu telefono honetara: 667 91 55 90.

**Ohea salgai.** XIX. mendeko ohe berritua salgai. Deitu 943 76 49 32 edo 650 01 01 83 telefono zenbakietara.

**Ordenagailua.** XP SP3 sistema eragilea. 1GB RAM. Antibirusa jarrita eta Office 2003 osorik, legala. Deitu 616 48 98 14 edo 943 79 23 69 telefono zenbakietara.

**SP LTD** gorria salgai. Zorroarekin. Ia berria. 250 euro (negoziagarriak). Interesatuak, deitu telefono honetara: 675 12 80 43.

**Snow taula** salgai, US-40 markakoa. Taula eta fijazioak 85 euro. Taulak 1,65 metro neurtzen du eta egoera onean dago. Interesatuak, deitu telefono honetara: 671 92 06 49.

**Urrea.** 24 kilateko urrea salgai. Interesatuak, deitu telefono honetara: 656 75 76 98.

### 802. EROSI

**Lursaila** erosiko nuke Bergaran edo inguruetan. Interesatuak, deitu telefono honetara: 669 17 09 51.

### 803. EMAN

**Isats-pianoa** ematen da debalde. Ia 100 urte dauzka, baina konponketa batzuk eginda ostean, primeran geratuko da. Garraioa hartzailearen kontura. Deitu 943 79 80 54 edo 943 79 80 54 telefono zenbakietara.

### 804. HARTU

**Bikiendako** aulkia, arropa eta gainerako osagarriak hartuko nituzke, ezin ditudalako erosi. 671 77 15 42.

### 806. GALDU

**Belarritakoa** galdu nuen Arrasateko alde zaharrean otsailaren 26an. Urre zuria. Balio sentimentala du. Aurkitu duenak dei diezadala, mesedez 619 45 42 87 telefono zenbakira.

**Kamera bila.** Inauteri-larunbatean, otsailaren 13an, argazki-kamera galdu genuen indiarrarena egiten. Zorro beltz baten barruan sartuta dago. Inork aurkitu badu, eskertuko genioke itzultzea. Mila esker. Aurkitu duenak dei diezadala, mesedez: 629 44 02 18.

**Poltsoa eta telefono mugikorra** galdu dut, Bergarako Zabalotegi aretoan. Deitu 653 73 77 86 telefonora.

### 807. AURKITU

**Irakurtzeko betaurrekoak** aurkitu nituen Arrasateko Santa Marina auzoan otsailaren 21ean. Zureak badira, deitu 943 79 96 71 telefono zenbakira eta Juanjorengatik galdetu.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 m$^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 m$^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 m$^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60m$^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 m$^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 m$^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 m$^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 m$^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 m$^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 m$^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 m$^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 m$^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 m$^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 m$^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 m$^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m$^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 m$^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 m$^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 m$^2$. Berritua.
- San Roke 80 m$^2$. 80 m$^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 m$^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m$^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m$^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 m$^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m$^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m$^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 m$^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 m$^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m$^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 m$^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m$^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,99 m$^2$ + ganbara, berritzeko.
- Zabalotegi 80 m$^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m$^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artekale, 81 m$^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m$^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m$^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 m$^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m$^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m$^2$.
- San Antonio, 65 m$^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m$^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 m$^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m$^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m$^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 m$^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 m$^2$, ia berria.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Koldo Mitxelena.** Errenteriako Udala. Helburua da euskal kulturaren historia, artea, soziologia, antropologia, ekonomia, hizkuntzalaritza, literatura, etnologia, zuzenbidea eta, oro har, gizazientziei buruzko ikerlanak sustatzea. Epea: ekainaren 30a.

**LANA**

**> Irakasleak.** EHU. Unibertsitate irakasleen ordezkoen zerrendak osatzeko hainbat lan poltsa ireki ditu. Epea: martxoak 29.

**> Parke tematikoak.** Parke tematikoetan udan lan egin ahal izateko aukera zabala dago. Disney-world (Florida),Warner, Port Aventura, Dinópolis.

**> Begirale/zuzendariak.** Uda honetan begirale edo zuzendari bezala lan egin nahi baduzu UDA-TXOKOn lan eskaintzak bildu ditugu. *www.gipuzkoagazteria.net/uda.*

**IKASTAROAK**

**> Sorospena. Azkoitiko Gurutze Gorria.** Ur sorospen ikastaroa eta hondartzako modulua, martxoaren 27an hasita.

**AISIALDIA**

**> Udalekuak 2010.** Gipuzkoako Foru Aldundia. 7-13 urte bitartekoentzako. Zozketarako izen emate epea: 2010eko martxoaren 16tik 26ra. Gazte bulegoetan edo *www.gipuzkoa.net/oporraldi.*

**> Oporraldiak 2010.** Gipuzkoako Foru Aldundia. 14-17 urte bitartekoentzako. Zozketarako izen emate epea: 2010eko apirilaren 21etik 29ra.

gazte informazioa

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 22



**> Gorlako igoera, 'Harmailatik' kirol saioan**
**22:15**

Gorlako igoeraren –23 urtez azpikoen txirrindularitza lasterketa garrantzitsuenetakoa da– berri jasoko dugu *Harmailatik*-en.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Erloklip.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Pilota: Bergarako lau t'erdiko finalaurreak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 23



**> Felipe Uriarte, 'Ilunpean'-eko gonbidatua**
**22:15**

Felipe Uriarte izango da *Ilunpean* saioan. Alpinista eta mendi gidari pasaitarrak Jon Berezibarren galderei erantzungo die.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kulturzulo.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 24



**> Lau t'erdiko pilota sariketako finala**
**22:15**

Bergarako lau t'erdiko Soraluce Koop. sariketako finala ikusteko aukera izango da. Onsalo eta Yoldi lehiatuko dira.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Kiroleroak.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena magazinea.
**22:15** Pilota: Bergarako lau t'erdiko finala.
**23:45** Goiena magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 25




**> Eibarko antzerki jardunaldiak eman dituenak**
**22:15**

Hilaren 26an bukatzen diren Eibarko 33. Antzerki Jardunaldien berri jasotzeko aukera, *Gipuzkoakultura* saioan.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoakultura.
**15:45** Erloklip.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Pilota: Bergarako lau t'erdiko finala.
**19:45** Goiena magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 26



**> Ikus-entzunezkoen etorkizunaz**
**22:15**

*Ikus-entzunezkoen etorkizuna* izenburupean, mahai-ingurua izango da GOITBko platoan, Gorka Julio *Teketen*-ekin.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Euskaldunak hizketan.
**14:15** Onein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena magazinea.
**20:45** Gipuzkoakultura.
**21:15** Goiena magazinea.
**22:15** Erronkak: Ikus-entzunezkoen etorkizuna.
**22:45** Kiroleroak.
**23:15** Kalekantoi.
**23:45** Goiena magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Bitter Honey eta Distorsion taldeen kontzertuetarako sarrerak zozkatuko dituzte**

Bi kontzertutarako sarrerak zozkatuko ditu Arrasate Irratiak oraingo astean. Hilaren 26an, egubakoitza, Bitter Honey talde arrasatearrak diskoa aurkeztuko du. Cool Circusek ere joko du. 23:00etan izango da. Zapatuan, Distorsion eta Rat-Zinger taldeek joko dute. Zozketan parte hartzeko: 943 25 05 05.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!.
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa).
Astelehenetan kirolak.
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin).
Udal Gazte Bulegoa.
Sexologia Zerbitzua.
Astearen errepasoa (Goienkariarekin).
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak.
Zozketak (egubakoitzean).
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga).
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.).
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**GOITB**

# Antzuolako armarriaz jardungo dute adituek

**LEIRE KORTABARRIA** > ANTZUOLA

Antzuolaren armarrian hamabi kanoi agertzen dira. 1512. urtean Gaztelak Nafarroa konkistatu zueneko ikurra da, eta Udalak sinbolo horiek kendu nahi ditu. Nabarralde elkartearen tesiak hartu ditu kontuan Udalak. "Estatu okupatzaileak indar gipuzkoarrak erabili zituen nafarren kontra eta honek gure herria zatitzea ekarri zuen", elkarte horren esanetan.

Hori dena komentatuko dute mahai-inguru berezi baten hilaren 25ean, eguena, Joseba Asiron, Txente Rekondo eta Angel Rekaldek, Goiatz Aranak aurkeztuta. 19:45ean hasiko da saioa Goiena Telebistan.

**GOITB**

# Bergaran 'salto' egingo du GOITBk gaur

**L.K.** > BERGARA

Goiena Telebistak formatu digitalera saltoa egiten jarraitzen du modu gradualean, Debagoien osoan bere seinalea Lurreko Telebista Digitalaren bitartez zabaltzeko bidean. Hurrengo jauzia izango da gaur, astelehena; izan ere, gaur instalatuko dituzte Goiena Telebistako arduradunek beharrezko ekipamendu digitalak San Migelen (Bergara). Hala, gaur bertan, dena ondo bidean, hasiko da GOITB formatu digitalean emititzen Bergaran ere.

Antzuolan eta Elgetan emititzen hasteko eguna ere gertuago dago, Bergarako instalazioak ezinbestekoak baitira herri horietan emititzeko.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**PLANETARIUM EKO SAIO BERRIA!**
**KALUOKA'HINA, UHARRI SORGINDUA**

Haurrei zuzendutako planetariumeko saio berria ikusgai Zientziaren kutxaGuneko Planetariumean.
Enigmaz eta misterioz betetako abentura arriskutsu batean murgilduko gara eta bertan, urpean bizi diren izaki maitagarriz, eta, inoiz, arriskutsuz betetako mundua ezagutuko dugu…
Karteldegia kontsultatu *www.miramon.org* webgunean





**ETA ASTEBURURO**
**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEAN**

- Simulagailuak
- Zientzia ikuskizunak
- Bisita gidatuak GAIAn
- Animazioak

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org
**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Astearteik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00.

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



ARETXABALETA
**Amaia Bermudez Etxebarrieta**
Martxoaren 15ean, 7 urte. Zorionak, neska polit hori! Muxu handi bat amatxoren bihotzetik eta familia osoaren partetik. Neskatxo bat egina zaude.



ARETXABALETA
**Urko Egia Barandiaran**
Martxoaren 15ean, 5 urte. Zorionak, *pirata*! Eta laztan handi bat etxeko guztion partetik.



BERGARA
**Danel Gantxegi**
Martxoaren 17an, 8 urte. Zorionak, Danel. Ondo pasatu zure urtebetetzean. Muxu handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Unai Arias Axpe**
Martxoaren 18an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat eta ondo pasatu zure eguna etxeko guztien partetik, bereziki Iker eta Eiderren partetik.



OÑATI
**Enaitz Odriozola**
Martxoaren 19an, 4 urte. Zorionak etxekoen partetik.



BERGARA
**June Arrondo Agirre**
Martxoaren 20an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen partetik, bereziki Anerren partetik.



ARRASATE
**Ion Albeniz**
Martxoaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak, Ion! Ondo pasatu zure egunean. Maite zure emazteaen eta Jos, Fati, Julen eta Jone lagunen partetik.



ARETXABALETA
**Yulí Corres Zubillaga**
Martxoaren 21ean, 5 urte pasatu dira Txinan elkartu giñela lehenengo aldiz! Maite zaitugu, maitia! Sarah, aita eta ama.



OÑATI
**Irene Gartzia Leturiaga**
Martxoaren 21ean, 12 urte. Zorionak eta patxo handi bat, etxekoen partetik.



ELGETA
**Jon Markiegi Arenaza**
Martxoaren 21ean, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoen eta bereziki Ikerren partetik.



OÑATI
**Igor Urteaga, 'Lomus'**
Martxoaren 22an, 34 urte. Zorionak Oñatiko zure lagunen partetik. Patxo handi bat.



ARRASATE
**Amets Arexolaleiba Erretolatza**
Martxoaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Ondo pasatu zure urtebetetze egune. Patxo bat etxekuen partetik!



BERGARA
**Uxue Iriondo Igarza**
Martxoaren 22an, urtebete. Zorionak eta patxo handi bat familiaren partetik eta bereziki Iratiren partetik.



OÑATI
**Jose Miguel Lopez Arias 'Matra'**
Martxoaren 23an, 41 urte. Zorionak Oñatiko *La Cuadri*-ren partetik. Zure semeen partetik muxu handi bat, aitatxo.



ARRASATE
**Joseba Barandiaran**
Martxoaren 23an, urtebetetzea. Zorionak, aitatxo! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Muxu handi bat, amatxo, Julen eta Joneren partetik.



ARRASATE
**Irantzu Lopez de Bergara Moreno**
Martxoaren 23an, 38 urte. Zorionak, tia Irantzu! Nolako guapa! Ederto pasatu eguna, besarkada pila eta marrubizko muxu potolo-potoloak, etxekoen eta bereziki loba Beñat eta Marenen partetik.



OÑATI
**Jokin Madina Zubia**
Martxoaren 23an, 4 urte. Zorionak, Jokin! Patxo handi bat etxeko danan partetik.



OÑATI
**Mikel Bengoa**
Martxoaren 24an, 18 urte. Zaharketan hasi zariela, Mikel! Zorionak eta ondo pasatu zure egunian. Eneritz, Malen, Auritz, Lier eta Aneren partetik.



ARETXABALETA
**Igone Osinaga**
Martxoaren 25ean, urtebetetzea. *Beni* dagoeneko zain dago. Zorionak eta ondo-ondo pasatu lankideen partetik!



ARETXABALETA
**Sheyla Alberdi Jorge**
Martxoaren 26an, 20 urte. Zorionak, guapa! Ondo pasatu eta laztan bat etxeko guztion eta, bereziki, Ibaien partetik.



ARRASATE
**Ixone Zurriarain Arkauz**
Martxoaren 26an, 3 urte. Zorionak, txiki! Oso ondo pasatu zure egunean! Hiru belarri tirakada eta patxo handi bat etxekoen partetik. Segi horrela, printzesa.



ARRASATE
**Irati Hernandez Iturbe**
Martxoaren 27an, 5 urte! Zorionak, edertasun, eta urte askotarako. Oso ongi pasatu zure egunean. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
**Ixone Garitaonaindia Uriarte**
Martxoaren 27an, 6 urte. Zorionak, sirenatxo. Oso ondo pasatu zure urtebetze eguna etxekoen eta, bereziki, Urki eta Hodeiren partetik. Patxo handi-handi-handia, ilargiraino eta bueltan.



OÑATI
**Leire Zabarte Arza**
Martxoaren 27an, 11 urte. Zorionak, Leire! Ondo pasatu urtebetetzea eta muxu asko familiaren partetik.



OÑATI
**Auritz Esnaola**
Martxoaren 27an, 3 urte. Zorionak, Auritz! Ondo-ondo pasatu zure egunian eta fuerte in putz kandelei! Patxo potolo bat etxeko danen partetik.

## kuxkuxeroa



**Arantzazu Ezkibel**

# Telebisiñuak argittuko ote dozku?

Zenbat fango ote zian zapatuan **Hamlet** entzutera **Pilar Rubio** ikusteko gogoz. Bada, alperrik! Madrildarra ez zan agertu... Ha ikustera fan zian *fan* eta kuxkuxeruak, telebisiñuan ikustiakin konformau biharko dia.

Aurpegi ezagunak ikusi nittuen, adibidez, Gorlan. **Iñigo Chaurreau** eta **Joseba Beloki** ziklista ohiak Gorlako igoeran egon ziren; oinguan, baina, bizikletan biharrian, autuan igo zian. Errosuau eta samurrau, duda barik. Aurpegixa aldatu xakon, momentu batetik bestera, **Pello Bilbao** Naturgas taldeko ziklistiari. Pozik euen, gaztia, lasterketia irabazi euelakuan... baina, azkenian bigarren postuakin konformau bihar. Ez dakit ba nik... Gorlan bigarrenak irabazi ez ote eben! Argazkittan behintzat, hala emuten dau. Gaur, Harmailatik ikusi bihar GOITBn, dudak argiketako!

> **"Markel Olano eguaztenian Oñatin izan zan eta gaur eguerdixan Elgetan izango da"**

Gurian aurrera eta atzera dabilena **Markel Olano** ahaldun nagusixa da. Eguaztenian Oñatin izan zan, eta, gaur eguerdixan Elgetan izango da. Debagoienian etxia in biharko dau...

Gainontzian, aurpegi ezagun gutxi eta jende gutxi gurian. Hiru opor egun hartuta, jendia kanpora fan da. Kontuz **Carrefour**reko segurtasun kamerekin...!

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu. Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera. Honako datuak emanez:
Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak datorren hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria
asteleheneán, aste bukaera osoa

## asteburuko albuma

**Saint Patrick eguna.** Irlardarren egun handia izaten da Saint Patrick eguna. Irlandako jai nagusia da eta martxoaren 17an ospatzen dute. Bada, gurean ere, ospatu zuten Irlardarren eguna. Irudia Arrasateko Olarte ikastolan hartutakoa da; eraikinerako sarreran, Irlandako banderak eta Euskal Herriko ikurrinak jarri zituzten, eta musikarik ere ez zen falta izan. Haurrak batzera joan ziren guraso eta aiton-amonek ospakizuna izan zuten, beraz. Katolikoen jai bezala hasi zena, Irlandako jai egun ofiziala bihurtu zen 1600. urtean.





**Contact inprobisazio ikastaroa.** Jaiki elkarteak antolatuta, Contact inprobisazio ikastaroa egin zuten atzo Aretxabaletan. 15 bat lagun ibili ziren, Ruth Belaskoetxea eta Adriana Gascó irakasleen agindupean, hainbat ariketa eta dantza egiten. Contact inprobisazioa biren arteko mugimendua da: biratu, ibili, irristatu, erori eta hartu, bermatu eta hegan egiten dute partaideek. Mugimendu fisikoa da, energetikoa, eta espazioan egiten dena.




**'Enrique El Grande'.** Egubakoitzean, Arrasateko Iamai tabernan bildutako lagunek ederto pasa zuten *Enrique El Grande* umoristaren bakarrizketa eta txisteekin. Iamai taberna 10. urteurrena ospatzen dabil eta, horren harira, hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen hilabeteetarako.

## jaiotakoak



**Laia Moto Escolar**
Arrasate > 2,980 kilo. Martxoaren 14an. Gurasoak: Nerea (Arrasate) eta Jose (Arrasate). Argazkian, Laia jaioberria, esna.



**Maialen Txurruka Agirre**
Arrasate > 3,480 kilo. Martxoaren 14an. Gurasoak: Esti (Arrasate) eta Eduardo (Soraluze). Argazkian, Maialen jaioberria, amarekin.



**Selene Soriano Morcillo**
Antzuola > 3,080 kilo. Martxoaren 17an. Gurasoak: Ana Belen (Antzuola) eta Raul (Antzuola). Argazkian, Selene jaioberria, amarekin.



**Markel Albizu Urzelai**
Oñati > 3,400 kilo. Martxoaren 17an. Gurasoak: Ione (Oñati) eta Eleder (Oñati). Argazkian, Markel jaioberria, sehaskan lo.



**June Blanco Zabaleta**
Oñati > 2,500 kilo. Martxoaren 17an. Gurasoak: Maite (Oñati) eta Jorge (Oñati). Argazkian, June jaioberria, sehaskan lo.



**Ilargi Morais Coca**
Antzuola > 3,090 kilo. Martxoaren 15ean. Gurasoak: Araceli (El Hornillo) eta Jorge (Antzuola). Argazkian, Ilargi jaioberria, amarekin eta ahizparekin.



**Iraia Angeles Telleria**
Antzuola > 3,710 kilo. Martxoaren 15ean. Gurasoak: Nerea (Antzuola) eta Carlos (Mexico). Argazkian, Iraia jaioberria, sehaskan lo.

BABESLEA


**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2010-03-22

**Felipe Uriarte** > Alpinista

# "Gailurra jo eta gero zailena dator: jaistea"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Edonor zur eta lur uzteko moduko historiala du Uriartek (Pasaia, 1944). Ez dago hark zapaldu ez duen mendi mitikorik. Iñurrategi anaiek edota Oiartzabalek harekin egin zituzten espediziorik entzutetsuenak. Harentzat, ordea, gailurrak baino gehiago, poesiak balio du mendian eta gaur egun edertasunaren bilatze horretan mendizaleei laguntzen dihardu espedizioen antolaketan.**

**Espedizio baten zer da egunerokotik faltan gehien sumatzen dena?**

Batez ere, eguneroko keinuak: kafe egin berriaren usaina, bikotekidearekin egunero gosaltzea, ogi berria, lagun baten deia...

**Eta itzulitakoan egiten duzuen lehenengo gauza?**

Baserriko arrautza frijituak ogi egin berriarekin jan eta *Berria* egunkaria irakurri.

**Txorizo eta ardoarekin ere ospatzen dituzue gailurrak Himalaian, adibidez?**

Ez da ospakizunetarako unea. Patxadazko begirada batekin inguruko paisaiari begiratu, beste begirada bat barruko beldur eta nekeari eta dei zorrotza gure kontzentrazioari. Soilik hori egiten da gailurrean. Gora iritsitakoan zailena geratzen da: jaistea.

**Hainbeste gailur egin eta gero, magia ez da galtzen?**

Aspergarria dena da beti arrakasta bilatzea. Mendigoizaletasuna poesia eta estetikatik hurbil dago, ez hainbeste kiroletik. Zoragarria da, adibidez, Josune Bereziarturen bilakaera: kirol eskaladatik konpromisoz beteriko Alpezaletasunera. Vallejo-Iñurrategi-Zabalak Everesteko iparraldera egindakoa arrakastarik gabea baina emozioz betea izan zen. Pasabanen igoerak aspergarriak eta errutinarioak dira, grisak. Pasabanek mendizaletasunaren aspektu arrotza eta gaiztoa sartu du: mendizaleen lehia.

**Ez dugu alpinistaren irudi erromantikoegia, agian?**

Egiazko alpinista ez dago arrakastari lotua, edertasunari, poesiari eta bere intimitateari baizik. Telebista handiekin-eta lehian doazen horiek irudi faltsua ematen dute. Lan maltzur horretan mendizale itxura duten pertsonen laguntza lortzen dute diru eta ospearen truk. Adibidez, Patxi Lopez horrelako itxura duen pertsona lotsagabea litzateke mendizaletasunean: gezurra eta tranpak erabilita herri honen gailurrik preziatuena lortu du, Lehendakaritza.

SOSLAIA

## Edertasuna

Ikuskizun, lehiaketa eta ikusgarritasunetik urrun, mendizalea izaki aske eta poesiaz betea da, Felipe Uriarteren iritziz. Mendiaren edertasunak, poesiak, bultzatzen du Uriarte zortzimilakoetara. Bidaia intimoa da harentzat, estetika. Gogorra da estilorik ez duten alpinistekin, arrakasta bakarrik bilatzen dutenekin. "Egiazko alpinistak edertasuna bilatzen du". Gailurrik garaienak jotzen dituen bidaia intimo horietan gidari ere badabil, poesia hori bilatzen erakusten.



Uriarte, Aletschhornen (4.195 metro, Suitza). ARTXIBOA

### ai, ene!



**3.0 USBa, azkarrena**

USBaren bertsio berria da. Hamar aldiz azkarragoa izateaz gain, 2.0 USBak baino energia gutxiago kontsumitzen du. USBetara konektatzen diren aparatuek izandako aurrerapen teknologikoek eskatuta etorri da USB modelo berria.

http://tiny.cc/QZfjV

### biharamuna

Iñigo Biain

## Eliza bekatariaren kronika isila

Elizak eta elizgizonek garai batean zuten botere sozial, moral eta politikoa, zorionez, ahulduz joan da azken mende erdian, eta haien itzal luze eta ilunak estaltzen zituen hainbat eta hainbat abusu aireratuz joan dira poliki poliki. Azken berriek oso gertutik harrapatu gaituzte Jose Angel Arregi apaizaren kasuarekin, eta beste behin ere, agerian gelditu da garai batean santu ukiezinak ziren haiek, gizaki ahul, gaixo eta bekatariak besterik ez direla, beste edozein lanbide duen beste edozein gizaki bezalaxe. Baina noski, elizak, ahulduta ere, eliza izaten jarraitzen du, eta era honetako kasuek oihartzun mediatiko ozenagoa izan ohi dute bere baitan sortzen direnean. Azken ikerketek diotenez, dena den, pederastia eta abusu kasuak ez dira maizago ematen elizgizonen artean igeltsero, taxi gidari, sukaldari, kazetari edo okinen artean baino, baina orain gutxienez badakigu ziur Zugarramurdiko sorginetatik hasi, kolonizazio erlijiosoaren biktimekin jarraitu, eta gaur egungo hezkuntza sistemaraino, milaka eta milaka izan direla elizaren itzalpean egin diren abusuak eta sistematikoki infernuko suaren mehatxupean isilarazi direnak.



### eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +14 | +08 |

Goizaldean behe-lainoa agertuko da baina, gainontzeko orduetan, hodeien artetik urdingune politak azalduko dira.

www.euskalmet.net

Antzuolako armarriaren kanoiak

**MAHAI-INGURU BEREZIA**
> Eguenean, martxoak 25, 19:45ean
> Parte hartzaileak:
Joseba Asiron, Txente Rekondo eta Angel Rekalde.
> Goiatz Aranak aurkeztuta.

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

